Ikerketa honetan ezin izan dugu hori alboratu eta horregatik gazteen parte-hartzearen inguruko lehen neurketa elkarteetako bazkidetza klasikoan oinarritu dugu, ondoren elkarteetako parte-hartze aktiboa jorratzeko.

Elkarteak zerrendatzerako garaian, mota guztietakoak hautatu dira (gazteenak, ikasleenak, politikoak, kirol-elkarteak, dibertimendurakoak...) eta gazteen lokalak ere izan dira kontuan. Horiek ez daude elkarte bezala eratuak kasu askotan, baina elkartearen ezaugarri asko dituzte, hala nola, bazkidetza arautzea, kuota ordaintzea, eskubideak eta betebeharrak norberaren gain hartzea... Gainera, gure autonomia-erkidegoan azken aldian asko zabaltzen ari den fenomeno da.

Azkenik, gazteteetan antolatutako jardueretan bertaratzea ere aztertu dugu ikerketa honetan. Lokal autogestionatu hauek jarduera kultural ireki asko sustatu eta antolatzen dituzte, hala nola, tailerrak, kontzertuak, hitzaldiak... Bertara joate hutsa ezin da parte-hartze aktibotzat hartu, eta hori dela-eta ez da kontuan hartu elkartegintza-tasa ezartzerakoan, baina ukaezina da parte-hartze sozialeko esparruak direla.

Los estudios clásicos sobre participación parten, entre otras premisas, de la participación dentro de asociaciones constituidas para un fin establecido y con un funcionamiento más o menos reglamentado.

Ello se debe, en gran medida, al hecho de que este tipo de medición permite un acercamiento al fenómeno de una manera relativamente sencilla, cuantificable y comparable con otros ámbitos geográficos o con otros grupos poblacionales. Sin embargo la pertenencia a asociaciones no conlleva necesariamente la participación en las mismas.

En este estudio no hemos podido obviar este hecho y por ello la primera aproximación a la participación joven se basa en la clásica pertenencia a asociaciones, para ahondar posteriormente en la participación en las mismas.

A la hora de catalogar las asociaciones se han tomado en consideración todo tipo de ellas (juveniles, estudiantiles, políticas, deportivas, recreativas...) y se ha incluido una nueva categoría que, si bien en muchos casos no está constituida como asociación, sí cumple muchas de sus características como son la organización de la pertenencia, el pago de una cuota, la asunción de deberes y derechos... Estamos hablando de las lonjas o locales juveniles que tanto auge han tomado en nuestra comunidad autónoma.

Finalmente, en este estudio se ha realizado un acercamiento a la asistencia a las actividades que se organizan en los gaztetxes. Estos locales auto gestionados promueven y organizan un amplio número de actividades culturales abiertas como talleres, conciertos, charlas, etc. Aunque la mera asistencia no puede considerarse pertenencia, y por tanto no se utiliza este dato para la construcción de la tasa de asociacionismo, es indudable que constituyen un espacio de participación social.

2.1. ELKARTE EDO TALDEETAKO KIDETZAREN HEDAPENA

Kontuan hartu beharreko lehen datua da zenbat gazte diren, haien esanetan, elkarte edo talde bateko kide gaur egun; horri elkartegintza-tasa zabaldu deitu diogu (zabaldua esaten diogu lehen aipatu dugun bezala gazteen lokalak ere barne hartzen dituelako, neurraketa klasikoetan ez bezala).


Bigarren puntu bat da aldi berean hainbat elkarte edo elkarte-motako kide diren gazteak.

Hirugarren puntuak orain inongo elkartetako kide ez diren gazteak bi taldetan bereizten ditu: iraganean elkarte bateko kide izandakoak eta ondoren kide utzi zutenak, batetik, eta inoiz elkarte bateko kide izan ez direnak bestetik.

Grafiko honetan ikus dezakegu gazteen eta elkartetako kidearen informazioa laburbilduta.

14. GRAFIKOA.

Nola banatzen dira Euskadiko gazteak elkartetan izandako esperientziaren arabera? (%)



2.1. EXTENSIÓN DE LA PERTENENCIA A ASOCIACIONES O GRUPOS

El primer dato básico a considerar es cuántas personas jóvenes dicen pertenecer o ser miembros actualmente de alguna asociación o grupo; es lo que hemos denominado la tasa de asociacionismo ampliada (ampliada por la mencionada incorporación de las lonjas, a diferencia de las mediciones clásicas).

Un segundo punto a abordar es la pertenencia a varias asociaciones o tipos de asociaciones simultáneamente.

El tercer punto trata de distinguir la no pertenencia actual a asociaciones entre quienes han pertenecido anteriormente y han abandonado su pertenencia, por un lado, y, por otro, quienes no han pertenecido nunca a ninguna asociación.

El siguiente gráfico nos resume gráficamente la situación de la juventud en relación a la pertenencia a asociaciones.

GRÁFICO 14.

¿Cómo se distribuye la juventud vasca de acuerdo a su experiencia en asociaciones? (%)

2.1.1. Elkartegintza-tasa zabaldua

Euskadiko 15 eta 29 urte arteko gazteen erdiek baino zerbait gehiagok (% 57,3k) diote edozer motatako elkarte bateko kide direla, gazte lokal bateko kidetza ere kontuan hartu delarik, elkarte-kategoria berri bezala.

Elkartegintza-tasa (edo elkarreteko kidetza) kalkulatzeko gazte-lokalak ere kontuan hartu ditugunez, ezin ditugu datuak iraganeko beste ikerketetakoekin alderatu, baina errealitatearen irudi zehatzagoa lortzen dugu, antolakuntzan eta gestio partekatuan kideen parte-hartzeak berebiziko garrantzia duen alor bat kontuan hartu dugulako. Horregatik diogu tasa “zabaldua” dela, “elkartegintza” terminoari uko egin gabe, ikergaiaren identifikazio azkarra ahalbidetzen duelako.

Elkartegintza-tasa zabaldua edo elkarteren bateko kide izatea altuagoa da gizonen artean (% 63,7) emakumeen artean baino (% 50,7). Era berean, altuagoa da tasa 20 urte baino gutxiago dituztenen artean (% 63,0) eta gero adinarekin batera egiten du behera (% 58,1koa 20-24 urte artean eta % 52,6, berriz, 25-29 urte artean). Aurrerago ikusiko ditugu elkarte-mota guztiak banan-bana, eta hor argi geratuko da mutilek kirol-elkarreetan eta gazte-lokaletan duten presentzia handiagoak eragina duela haien elkartegintza-tasa handiagoan.

15. GRAFIKOA.

Elkartegintza-tasa zabaldua, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

2.1.1. Tasa ampliada de asociacionismo


Algo más de la mitad de la juventud vasca de entre 15 y 29 años (57,3 %) dice ser miembro de alguna asociación de cualquier tipo, incluyendo las lonjas o locales juveniles como una nueva categoría de asociación.

La inclusión de las lonjas o locales juveniles en el cálculo de la tasa de asociacionismo (o pertenencia a asociaciones) impide la comparación con otros datos anteriores pero nos permite un acercamiento más completo a la realidad de la participación joven al incluir un ámbito que destaca precisamente por la participación de sus miembros en la organización y cogestión. Es por ello que, sin renunciar al término “asociacionismo” que permite una rápida identificación del tema de estudio, hemos considerado que se trata de una tasa “ampliada”.

La tasa ampliada de asociacionismo o pertenencia a alguna asociación es mayor entre los hombres jóvenes que entre las mujeres jóvenes (63,7 % y 50,7 %, respectivamente). También es mayor entre quienes tienen menos de 20 años (63,0 %) y posteriormente descende a medida que aumenta la edad (58,1 % entre las y los jóvenes de 20 a 24 años y 52,6 % entre quienes tienen de 25 a 29 años). Como veremos más adelante, al analizar la pertenencia a cada tipo de asociación por separado, la mayor presencia de los chicos en las asociaciones deportivas y en las lonjas o locales juveniles incide en estos mayores porcentajes de pertenencia a asociaciones en general.

GRÁFICO 15.

Tasa ampliada de asociacionismo, según sexo y grupos de edad (%)



Bestalde, elkarte bateko kide izatea zabalduago dago gizarte-maila altuko edo ertain-altuko gazteen artean (% 68,7) eta behera egiten du gizarte-maila subjektiboan behera egin ahala (beren burua erdiko mailan kokatzen duten gazteen % 56,1 da elkarte bateko kide, eta kopurua % 48,7ra jaisten da maila baxu edo ertain-baxuko gazteen artean).

Politikan interes handia edo nahikoa interes duten pertsonen ere interes gutxi edo batere interesik ez dutenak baino joera handiagoa dute elkarteetako kide izateko (% 64,7 eta % 50,5, hurrenez hurren).

Familia-ereduaren eraginak argia dirudi, elkarteetako kideak diren gurasoen seme-alaben elkartegintza-tasa (% 66,4) elkarteetako kide ez diren gurasoak dituzten gazteena baino altuagoa baita (% 51,5).

Pertsonenganako konfiantzak ere badu eraginik elkartegintzaren mailan, handiagoa baita pertsona gehienengan konfiantza izan daitekeela uste dutenen artean (% 62,4) beti zuhurtziaz jokatu behar dela uste dutenen kasuan baino (% 52,4).

Ikastetxeko esperientzia partizipatiboak edo elkarteak zaharkituta daudelako usteak, ordea, ez dute eraginik elkartegintza-mailan.

2.1.2. Kidetza anitza, edo aldi berean hainbat elkartetako kide izatea

Elkarte bateko kide da gazteen % 57,3, eta kopuru hori bi zati berdinetan bana dezakegu elkarte edo elkarte-mota bakar bateko kide diren gazteen (% 28,8) eta elkarte-mota bat baino gehiagoko kide diren gazteen artean (% 28,5).

Aipatu behar dugu elkarteak taldeka sailkatu direla, eta mota bereko elkarte batean baino gehiagotan parte hartzea (kirol-elkarteetan, esate baterako) elkarte-mota bakar bateko kide izatea bezala kuantifikatzen dela.

Elkarte askotako kide direnen artean, ohikoena da bi elkartetako kide izatea (% 15,0), baina % 7,6k dio hiru elkarte-motako kide dela eta % 6,2k lau elkarte-mota edo gehiagoko kide dela.

Elkarte askotako kide izatea ohikoagoa da gizon gazteen artean (% 34,0) emakume gazteen artean baino

Por otro lado, ser miembro de alguna asociación también está más extendido entre la juventud de clase social alta o media-alta (68,7 %) y se reduce al tiempo que baja la clase social a la que subjetivamente se percibe que se pertenece (el 56,1 % de la juventud que se considera de clase media dice pertenecer a alguna asociación, así como el 48,7 % de quienes se definen de clase media-baja o baja).

Las personas muy o bastante interesadas en la política también tienden a asociarse en mayor medida que quienes están poco o nada interesadas en política (64,7 % frente a 50,5 %).

La incidencia del modelo familiar parece clara, dado que las personas jóvenes cuyos progenitores están asociados presentan mayores tasas de asociacionismo (66,4 %) que aquellas personas cuyos progenitores no están asociados (51,5 %).

La confianza en las personas también influye en el nivel de asociacionismo, que es mayor entre quienes creen que se puede confiar en la mayoría de la gente (62,4 %) que entre quienes consideran que nunca se es suficientemente prudente (52,4 %).

La experiencia participativa en el centro de estudios o la opinión sobre la obsolescencia de las asociaciones, en cambio, no incide en una mayor o menor afiliación a las mismas.

2.1.2. Pertenencia múltiple o multifiliación

El 57,3 % de la juventud que dice pertenecer a alguna asociación se divide prácticamente por igual entre quienes son miembros de una única asociación o un único tipo de asociaciones (28,8 %) y quienes dicen pertenecer a varios tipos de asociaciones (28,5 %).

Hay que señalar en este punto que las asociaciones se han clasificado por tipos, de modo que la pertenencia a varias asociaciones del mismo tipo (deportivas, por poner un ejemplo) se cuantifica como un único tipo de asociación.

En el caso de pertenecer a varios tipos de asociaciones (multifiliación) lo más habitual es pertenecer a dos (15,0 %), si bien un 7,6 % señala que pertenece a tres tipos de asociaciones y otro 6,2 % a cuatro o más tipos de asociaciones.

La pertenencia a varios tipos de asociaciones simultáneamente es más frecuente entre los hombres jóvenes (34,0 %) que entre las mujeres jóvenes (23,4 %),


(% 23,4). Era berean, maizago ikusten da gazteen artean (20 urtetik beherakoen % 33,8, 25 eta 29 urte artean dituztenen % 23,9ren aurrean). Adinarekin lotuta, ikusten dugu ohikoagoa dela hainbat elkartetako kide izatea ikasleen artean (% 31,7) langileen (% 25,4) edo langabeen (% 20,6) artean baino.

Besteengan konfiantza izateko joera dutenak maizago dira elkarte askotako kide (% 33,0), mesfidatiak direnen aldean (% 25,1).

Hala ere, elkarte bat baino gehiagoko kide izaterakoan eragin handiena duten faktoreak hauexek dira: gizarte-maila, politikarekiko interesa eta elkarteetan ibiltzen diren gurasoak izatea. Hala, gizarte-maila altu edo ertain-altuko gazteen % 41,2, politikan interes handia edo nahikoa interes dutenen % 36,7 eta aita edo ama elkarteetako kide dutenen % 38,7 dira hainbat elkarteko kide aldi berean.

16. GRAFIKOA.

Elkarte bat baino gehiagoko kide izatea aldi berean, gizarte-maila subjektiboaren, politikarekiko interesaren eta gurasoen asoziazionismoaren arabera (%)



Datu hauen harira, ondoriozta dezakegu hainbat elkarteko kide izateko oinarritzko osagaiak direla: denbora eta baliabide materialak izatea, “komunitatearekiko” interesa izatea, besteekiko konfiantza izatea eta familian elkartegintzako erreferente edo eredu bat izatea.

2.1.3. Elkarrekin kide ez izatea

Gazteen % 42,6 ez da elkarte bateko kide gaur egun, baina horrek ez du esan nahi ez dela elkarte bateko kide izan inoiz. Inoiz elkarte bateko kide izan ez direnak % 17,1 dira. Gainerako % 25,5ek, hau da,

y también es más común entre los y las más jóvenes (33,8 % entre quienes tienen menos de 20 años frente al 23,9 % entre quienes tienen de 25 a 29 años). Ligado a la edad se observa que la pertenencia a varias asociaciones es más habitual entre las y los estudiantes (31,7 %) que entre quienes están trabajando (25,4 %) o en paro (20,6 %).

Quienes tienden a confiar en la mayoría de la gente presentan mayores niveles de pertenencia múltiple (33,0 %) que quienes presentan desconfianza (25,1 %).

Pero nuevamente la clase social, el interés por la política y tener unos progenitores asociados son las variables que más inciden en la pertenencia a varias asociaciones. Así, el 41,2 % de quienes se definen de clase alta o media-alta, el 36,7 % de quienes declaran tener mucho o bastante interés en la política y el 38,7 % de quienes afirman que su padre y/o madre pertenecen a alguna asociación son miembros de varias asociaciones.

GRÁFICO 16.

Pertenencia simultánea a varios tipos de asociaciones, según clase social subjetiva, interés por la política y asociacionismo de los progenitores (%)

A la vista de los datos podemos concluir que los ingredientes básicos para pertenecer a varias asociaciones son disponer de tiempo y de recursos materiales, tener interés en la “comunidad”, confianza interpersonal y un modelo o referente familiar de pertenencia a asociaciones.

2.1.3. La no pertenencia a asociaciones


El 42,6 % de la juventud actualmente no pertenece a ninguna asociación, pero ello no quiere decir que no haya pertenecido nunca. Quienes nunca han sido miembros de ninguna asociación son un 17,1%. El 25,5 % restante, esto

euskal gazteriaren laurdenak, adierazten du elkarte bateko kide izan zela iraganean, nahiz eta orain izan ez (ikus 14. grafikoa).

Inoiz elkarte bateko kide izan ez direnak % 20 baino pixka bat gehiago dira gizarte-maila baxu edo ertain-baxuko gazteen artean, besteekin zuzentzeko jokatu behar dela uste dutenen artean, politikan interes gutxi edo batere interesik ez dutenen artean eta elkarteetako kide ez ziren gurasoak dituztenen artean.

17. GRAFIKOA.

Euskal gazteen eta elkarten arteko harremana, gizarte-maila subjektiboaren eta gurasoen asoziazionismoaren arabera (%)



es, una cuarta parte de la juventud vasca, señala que aunque actualmente no pertenece a ninguna asociación anteriormente sí estuvo en alguna (ver gráfico 14).

Entre las personas jóvenes de clase baja o media-baja, entre quienes afirman que nunca se es suficientemente prudente al tratar con los demás, entre quienes tienen poco o ningún interés en la política y entre aquellas personas cuyos progenitores no son miembros de ninguna asociación los porcentajes de quienes no han pertenecido nunca a ninguna asociación superan ligeramente el 20 %.

GRÁFICO 17.

Relación de la juventud vasca con las asociaciones, según clase social subjetiva y asociacionismo de los progenitores (%)

Neskek gehiagotan uzten dute elkarteetako kideetza (% 29,8) mutilek baino (% 21,4) Adinak aurrera egin ahala gora egiten du elkarteetan parte hartzeari utzi dioten gazteen portzentajeak (% 28,1, 25 urte baino gehiago dituztenen artean eta % 20,6 baino ez 20 urte baino gutxiago dituztenen artean).


Elkarteak uztea justifikatzeko gehien erabiltzen den arrazoia denbora-falta da (erantzunen % 53,4tan baliatu da argudio hori). Beste % 17,6 batek dio beren bizi-egoera aldatu dela eta elkarteetako kide izaten jarraitzeak zentzua galdu duela (lotura galtzea). % 13,8k dio ez dutela elkarteetako kide izaten jarraitzeko gogorik (inplikazioa galtzea). % 4,1ek bakarrik dio bazkideetza utzi zuela elkarteetan ezin zuelako parte hartu, egitura itxiegia zelako. Eta gutxiago dira (% 2,3) bazkideetza arrazoi ekonomikoengatik utzi zutenak.

Entre las chicas se constata mayor abandono de la pertenencia (29,8 %), habiendo sido miembro anteriormente, que entre los chicos (21,4 %). A medida que se incrementa la edad también aumenta el porcentaje de jóvenes que abandonan las asociaciones (28,1 % entre quienes superan los 25 años frente al 20,6 % entre quienes no alcanzan los 20 años).

La principal razón aducida por las personas jóvenes que abandonan su pertenencia a asociaciones es la falta de tiempo (el 53,4 % de las respuestas guardan relación con dicho motivo). Otro 17,6 % de las personas jóvenes anteriormente asociadas señalan que su situación vital ha cambiado y que actualmente la pertenencia ha perdido sentido (pérdida de vinculación). Otro 13,8 % de las argumentaciones vienen a decir que ya no les apetece seguir siendo miembros de la asociación (pérdida de implicación). Sólo un 4,1 % señala que abandona la pertenencia por no poder participar en la asociación debido a que la estructura de la misma es demasiado cerrada. Y son menos, 2,3 %, las y los jóvenes que afirman que económicamente no se pueden permitir seguir siendo miembros de la asociación.

18. GRAFIKOA.

Elkarteetako kideztza uzteko arrazoiak (%)




Oinarria: Kide izateari utzi dioten gazteak
Base: Juventud antes asociada pero ya no

Bizi-egoera aldatu delako eta kideztza zentzua galdu duela diotenen artean, % 40,8 gazte-elkarte bateko edo aisialdi-talde bateko kide zen, % 37,8 kirol-klub bateko kide zen, % 37,5 gazte-lokal bateko kide zen eta % 29,8 ikasle-elkarte edo mugimendu bateko kide zen. Geroago ikusiko dugun bezala, elkarte guzti horiek gazteenen eta ikasten dabilen artean dute pisu handiena.

Inoiz elkarte bateko kide izan ez direnek ematen dituzten arrazoiak anitzagoak dira: heren batek (% 33,2) dio ez duela inoiz planteatu, % 20,9k ez duela denborarik, % 16,4k ez duela gogorik (inplikazio edo gogo-falta) eta % 12,2k ez dagoela interesa pizten dion elkarerik (lotura edo interes-falta). Beste % 15 batek ez du inolako azalpenik eman. Arrazoi ekonomikoengatik egin ezin dezaketenak dira gutxien (% 1,1).

19. GRAFIKOA.

Inoiz elkarte bateko kide ez izateko arrazoiak (%)



Oinarria: Inoiz kide izan ez diren gazteak
Base: Juventud que nunca ha estado asociada

GRÁFICO 18.

Motivos para abandonar la pertenencia a asociaciones (%)

Entre quienes señalan que ya no pertenecen porque su situación vital ha cambiado y la pertenencia ha perdido sentido encontramos que un 40,8 % era miembro de alguna asociación juvenil o de tiempo libre, un 37,8 % era miembro de algún club deportivo, otro 37,5 % miembro de alguna lonja o local juvenil y otro 29,8 % pertenecía a alguna organización o movimiento estudiantil, esto es, todas ellas asociaciones con mayor peso en el estrato de edad más joven y en el colectivo estudiantil.

Las razones aducidas por quienes nunca han pertenecido a ninguna asociación están más repartidas: un tercio (33,2 %) señala que no se lo ha planteado nunca, un 20,9 % aduce que no tiene tiempo, un 16,4 % que no le apetece (falta de implicación o ganas) y un 12,2 % que no hay ninguna que le interese (falta de vinculación o interés). Otro 15 % no da ninguna explicación. Quienes señalan que no se lo pueden permitir económicamente son muy residuales (1,1 %).

GRÁFICO 19.

Motivos para no haber pertenecido nunca a ninguna asociación (%)

Edonola ere, inoiz elkarte bateko kide izan ez diren gazteen erdiek (% 52,4) diote haien inguruan, lagun artean, ikasketa-zentroan edo lantegian, auzoan, etab., ezagutzen dutela haiek ere parte har lezaketen elkarteetan parte hartzen duen jendea, eta beraz badutela asoziazionismorako aukera bat interesa piztuko balitzaie.

2.2. GAZTEAK KIDE DIREN ELKARTE-MOTAK

Orain arte, elkarteetan parte hartzen duten eta parte hartzen ez duten gazteen kopuruez mintzatu gara. Atal honetan gazteak gehien erakartzen dituzten elkarte-motak aztertuko ditugu.

Dudarik gabe, elkarte ludikoak, aisialdiarekin lotutakoak, dira gazteengan interes handiena pizten dutenak. Portzentajeak % 20tik gorakoak dira kirol-elkarteen eta gazte-lokalen kasuan, eta % 10 dibertimendurako eta aisialdiko elkarteei erreparatzen badiegu.

Aitzitik, elkarte tradizionalagoek, ideologia jakin bat eskatzen dutenak edo eska lezaketenak, dira gazte gutxien biltzen dituztenak; elkarte erlijioso, sindikal, profesional eta politikoez ari gara. Egoera berean daude elkarte ekologistak. Izan ere, badirudi krisiarekin ekologia gazteen (eta oro har biztanleen) arazo eta beharren agendatik at geratu dela, beste ikerketa batzuetan jaso izan den bezala (Euskadiko gazteak 2012⁸, 57. Euskal Soziometroa - Euskadi munduan⁹...) Kasu horietan guztietan afiliazio-mailak % 4tik beherakoak dira.

En cualquier caso, la mitad de las personas jóvenes que nunca han estado asociadas (52,4 %) señalan que en su entorno de amistad, centro de estudios o trabajo, vecindario, etc., conocen gente que participa en asociaciones en las que ellas también podrían participar, con lo que existe una ventana de oportunidad para su asociacionismo en el futuro en caso de surgir el interés por ello.

2.2. ÁMBITOS O TIPOS DE ASOCIACIONES A LAS QUE PERTENECE LA JUVENTUD

Hasta ahora hemos visto cuántas personas jóvenes pertenecen (o no) a asociaciones en general. En este apartado vamos a tratar de analizar qué tipos de asociaciones son las que más atraen a la juventud.

Sin duda, las asociaciones de carácter lúdico, relacionadas con el ocio o el tiempo libre son las que más interesan a las personas jóvenes. Los porcentajes superan el 20 % en el caso de las deportivas y las lonjas, y el 10 % si nos fijamos en las recreativas y las de tiempo libre.


Por el contrario, las asociaciones más tradicionales, que conllevan o pueden conllevar cierta ideología, son las que agrupan a menos jóvenes; estamos hablando de las religiosas, las sindicales o profesionales y las políticas. A ellas se suman las ecologistas, y es que parece que con la crisis la ecología ha caído de la agenda de problemas y necesidades de la juventud (y de la población en general), tal y como se constata en otras investigaciones (Juventud vasca 2012⁸, Sociómetro Vasco 57. Euskadi en el mundo⁹...) En todos estos casos los porcentajes de afiliación son inferiores al 4 %.

8 BILBAO, Miren; LONGO, Oskar eta CORCUERA, Nieves (2014). *Euskadiko gazteak 2012*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
9 *Euskal Soziometroa 57. Euskadi munduan* (2015). Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologioko Kabinetea. Vitoria-Gasteiz.


8 BILBAO, Miren; LONGO, Oskar y CORCUERA, Nieves (2014): *Juventud vasca 2012*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
9 *Sociómetro Vasco 57. Euskadi en el mundo* (2015). Gabinete de Prospección Sociológica del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.

20. GRAFIKOA.

Gaur egungo kide-tza hainbat elkarte-motatan (%)

**GRÁFICO 20.**

Pertenencia actual a distintos tipos de asociaciones (%)



Jarraian, euskal gazteen parte-hartzea aztertuko dugu hainbat elkarte-motatan.

2.2.1. Kirol-elkarateak eta mendi-taldeak

Kirol-elkarateak eta mendi-taldeak dira parte-hartze zabaldiena dutenak (% 23,9, hau da, euskal gazteen ia laurdenak dira horietako bateko kide). Horren arrazoi-tako bat da kirola egiteko federatuta egotea ohikoagoa dela gazteen artean bi arrazoi-rengatik. Batetik, kirol-modalitate desberdinetan aritzeak federatuta egoteko beharra dakar kasu gehienetan eta, bestetik, arrisku-maila bat duten kirolekin gomendagarria

A continuación vamos a analizar la pertenencia de la juventud vasca a cada uno de los tipos de asociaciones.

2.2.1. Las asociaciones deportivas o de montaña

La mayor pertenencia se registra en relación a las asociaciones o clubes deportivos o de montaña (el 23,9 %, esto es, casi una cuarta parte de la juventud pertenece a alguna de ellas). Esto guarda relación con la mayor extensión de la práctica deportiva federada durante la juventud debido, por un lado, a que la competición en las distintas modalidades deportivas conlleva, en la mayoría de los casos, la necesidad de estar federado o federada, y, por otro lado, a que en deportes que conllevan cierto riesgo

izaten da federatuta egotea, istripurik izanez gero doako laguntza izateko.

Beste % 26,3k dio iraganean izan zela kirol-elkarte bateko kide, nahiz eta orain izan ez. Hala, ikusten dugu euskal gazteen erdiak kirol- edo mendi-elkarte bateko kide direla edo izan direla.

Kirol-elkarteen parte-hartze maila % 23,9koa izan arren, portzentajeak % 30etik gora daude gizon gazteen kasuan (% 32,2), 20 urtetik beherako kasuan (% 34,7) eta beren burua klase altu edo ertain-altukotzat dutenen kasuan (% 31,7).

21. GRAFIKOA.

Kirol-elkarte edo mendi-taldeetako gaur egungo eta iraganeko kideetza, sexuaren, adin-taldearen eta gizarte-maila subjektiboaren arabera


es conveniente o recomendable para tener derecho a asistencia gratuita en caso de accidentes, etc.

Otro 26,3 % de la juventud señala que, aunque actualmente no es miembro de ninguna asociación deportiva, sí lo fue anteriormente, con lo que vemos que la mitad de la juventud vasca es o ha sido miembro de alguna asociación de deporte o montaña.

Aunque la media de pertenencia a asociaciones deportivas es del 23,9 %, los porcentajes superan el 30 % entre los hombres jóvenes (32,2 %), las y los menores de 20 años (34,7 %) y entre quienes se definen de clase alta o media-alta (31,7 %).

GRÁFICO 21.

Pertenencia actual y pasada a asociaciones deportivas o de montaña, según sexo, grupos de edad y clase social subjetiva (%)



Kirol-elkarteetako partaidetza ez da eksklusiboa izaten, eta elkarte hauetako kide diren gazteen bi herenek diote beste elkarte-mota bateko kide ere badirela.

La pertenencia a asociaciones deportivas no suele ser exclusiva; dos tercios de las personas jóvenes que pertenecen a alguna asociación deportiva afirman pertenecer a varios tipos de asociaciones simultáneamente.

2.2.2. Gazte-lokalak

Bost gaztetik batek (% 20,2) dio gaur egun gazte-lokal bateko kide dela.


Kirol-elkarteen kasuan bezalaxe, gazte-lokaletan mutilen presentzia handiagoa da, eta baita 20 urtetik beherakoena eta gizarte-maila altu edo ertain-altuko gazteena ere.

Gizon gazteen artean, % 28,4k dio gazte-lokal bateko kide dela eta emakumeen artean, % 11,8k.

20 urtetik beherakoen artean, % 29,4k dio gazte-lokal bateko kide dela. Adinak aurrera egin ahala lokaletara joateari uzten diote gazteek eta 20 urtetik gora nahiko gehiago dira iraganean lokal bateko kide izan zirela diotenak, gaur egun kide direnak baino.

22. GRAFIKOA.

Gazte-lokaletako gaur egungo eta iraganezko kideztza, adin-taldearen arabera



Hein handi batean adinari lotuta, ikusten dugu gaur egun lokal bateko kide direnen portzentajeak altuagoak direla ikasleen artean (%24,3), langileen (% 12,6) edo langabeen (% 15,8) artean baino. Azken bi talde horietan nahiko altuagoa da iraganean kide izan baina gaur egun lokal bateko kide ez direnen portzentajea.

Bestalde, gizarte-mailan gora egin ahala, gora egiten du ere gaur egun edo iraganean gazte-lokal bateko kide izandakoen portzentajeak. Hala, beren burua

2.2.2. Las lonjas o locales juveniles

Una de cada cinco personas jóvenes (20,2 %) señala que actualmente es miembro de alguna lonja o local juvenil.

Al igual que las asociaciones deportivas, las lonjas cuentan con mayor presencia masculina y también con un mayor porcentaje de menores de 20 años y de jóvenes de clase social alta o media-alta.

Entre los hombres jóvenes un 28,4 % afirma ser miembro de alguna lonja, frente al 11,8 % de las mujeres jóvenes que pertenecen a alguna.

Entre las personas menores de 20 años el 29,4 % dice ser de alguna lonja o local juvenil. A medida que aumenta la edad se produce un paulatino abandono y así entre las y los mayores de 20 años son bastantes más quienes dicen haber pertenecido anteriormente que quienes son miembros en la actualidad.

GRÁFICO 22.

Pertenencia actual y pasada a lonjas o locales juveniles, según grupos de edad (%)

Ligado en gran medida a la edad, vemos que los porcentajes de quienes son miembros actualmente son bastante más elevados en el colectivo de estudiantes (24,3 %) que entre quienes están trabajando (12,6 %) o en paro (15,8 %). En estos dos últimos grupos es bastante más elevado el porcentaje de quienes han sido miembros con anterioridad que el de quienes lo son en la actualidad.

Por otro lado, cuanto mayor es la clase social de referencia también es mayor el porcentaje de quienes actualmente son

gizarte-maila altuan edo ertain-altuan kokatzen dutenen % 23,6 lokal bateko kide da gaur egun. Portzentaje hori % 15,2ra jaisten da, aldiz, klase baxu edo ertain-baxukoen artean.

Era berean, aipatzekoa da lokaletako kidetza zabalduagoa dagoela Bizkaiko gazteen artean (% 22,5), Arabako edo Gipuzkoako gazteen artean baino (% 17,7 eta % 17,8, hurrenez hurren).

Gaur egun lokal bateko kide direnen % 63,4 beste elkarte bateko kide ere bada.

2.2.3. Dibertimendurako elkarteak (konpartsak, peñak, blusak, elkarte gastronomikoak...)

Euskal gazteen % 12,7 dibertimenduzko elkarte bateko kide da, hala nola konpartsak, peñak, blusak, elkarte gastronomikoak, etab. Beste % 8,8k dio iraganean kide izandakoa dela. Hau da, Euskadin bost gaztetik bat dibertimenduzko elkarte bateko kide da edo izan da.

Kasu honetan gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak txikiak dira, eta ia ez dago alderik adinaren edo okupazio nagusiaren aldetik.

Desberdintasunik handiena lurraldearen arabera da. Araban eta Gipuzkoan, gazte-lokaletako partaidetza txikiagoa den lekuetan hain zuzen, dibertimenduzko elkarteetako kidetza portzentajeak handiagoak dira, Bizkaikoak bikoizteraino (bai gaur egungo nola iraganeko kideetan).

Nabarmentzekoa da hamarretik zortzi (% 81,9) beste elkarte-mota bateko kide ere badirela adieraztea.

miembros de lonjas o locales juveniles, así como el de quienes lo fueron con anterioridad. De este modo, observamos que entre quienes consideran de clase social alta o media-alta un 23,6 % es miembro de una lonja actualmente, mientras que entre quienes afirman ser de clase social baja o media-baja el porcentaje de pertenencia actual es del 15,2 %.

También podemos señalar que actualmente la pertenencia a lonjas está algo más extendida en la juventud vizcaína (22,5 %), que en la alavesa (17,7 %) o guipuzcoana (17,8 %).

Alrededor de dos tercios (63,4 %) de quienes actualmente son miembros de alguna lonja o local juvenil lo son también de alguna otra asociación.

2.2.3. Sociedades recreativas (comparsas, peñas, blusas, sociedades gastronómicas...)

El 12,7 % de la juventud vasca pertenece actualmente a alguna sociedad recreativa tipo comparsas, peñas, blusas, sociedades gastronómicas, etc. Otro 8,8 % señala haber sido miembro anteriormente. Esto es, una de cada cinco personas jóvenes de Euskadi es o ha sido miembro de alguna sociedad recreativa.

En este caso las diferencias entre hombres y mujeres jóvenes son menores, y casi inexistentes si atendemos a la edad o a la ocupación principal.

La diferencia más destacable viene marcada por el territorio. En Álava y Gipuzkoa, donde la pertenencia a lonjas o locales juveniles es menor, se dan mayores porcentajes de pertenencia a sociedades recreativas, porcentajes que duplican los registrados en Bizkaia (tanto en pertenencia actual como pasada).


Es destacable que ocho de cada diez miembros (81,9 %) señalan pertenecer a varios tipos de asociaciones simultáneamente.

23. GRAFIKOA.

Dibertimenduzko elkarteetako gaur egungo eta iraganeko kidetza, bizi den lurraldearen arabera (%)

GRÁFICO 23.

Pertenencia actual y pasada a sociedades recreativas, según territorio de residencia (%)



2.2.4. Gazte- eta aisialdi-elkarteak

Euskadiko gazteen % 12,3 gazte- edo aisialdi-talde bateko kide da. Beste % 26,9k dio iraganean kide izan zela. Kide izandakoen portzentajeak egun kide direnak baino altuagoak dira talde guztietan, baita adinez gazteenen artean ere.

Gazte- eta aisialdi-taldeetako kidetza aztertzerakoan, desberdintasunik nabarmenenak eragiten dituzte adinak, gizarte-maila subjektiboak, bizilekuak eta gurasoen asoziazionismoak. Edonola ere, aipatu behar da desberdintasun horiek ez direla lehen aztertutako elkarte-motetan bezain nabarmenak.

Mota honetako elkarteetako partaidetza erdira murrizten da 25 urtetik aurrera, 15-19 urtekoen taldeko % 15,8tik eta 20-24 adin-taldeko % 14,8tik 25 urtetik gorako % 7,9ra igaroz.

Beren burua gizarte-maila altuan edo ertain-altuan kokatzen dutenen kidetza-portzentajea altuagoa da (% 19,4) maila ertainean (% 11,3) edo maila baxu edo ertain-baxuan (% 10,8) kokatzen dutenena baino.

Gipuzkoan portzentaje altuagoak ageri dira bai egungo (% 15,1) nola iraganean (% 31,4) partaidetzan. Bizkaia da mota honetako elkarteetan partaidetza txikiena erakusten duen lurraldea.

2.2.4. Asociaciones juveniles o de tiempo libre

El 12,3 % de la juventud vasca dice ser miembro de alguna asociación juvenil o de tiempo libre. Otro 26,9 % dice haberlo sido anteriormente. Los porcentajes de pertenencia anterior superan a los de pertenencia actual en todos los colectivos, incluso entre los de menor edad.

Las diferencias más destacables entre colectivos en relación a la pertenencia a asociaciones juveniles o de tiempo libre las marcan la edad, la clase social subjetiva, el territorio de residencia y el asociacionismo de los progenitores. Hay que destacar, en cualquier caso, que estas diferencias no son tan notorias como las registradas en los anteriores tipos de asociaciones analizados.

La pertenencia a este tipo de asociaciones prácticamente se reduce a la mitad a partir de los 25 años, pasando del 15,8 % en el colectivo de 15 a 19 años y 14,8 % entre quienes tienen de 20 a 24 años al 7,9 % entre quienes superan los 25 años.


Quienes se consideran de clase social alta o media-alta tienen mayores porcentajes de pertenencia (19,4 %) que quienes se ubican en la clase social media (11,3 %) o en la baja o media-baja (10,8 %).

En Gipuzkoa se dan los mayores porcentajes de pertenencia actual (15,1 %) y pasada (31,4 %), mientras que Bizkaia es el territorio con menores tasas de pertenencia a este tipo de asociaciones.

Gurasoak elkarre bateko kide zituzten gazteen taldeak ere partaidetza-erregistro altuagoak ditu, bai gaur egungoak nola iraganekoak.

24. GRAFIKOA.

Gazteen elkarre-etako eta aisialdi-talde-etako gaur egungo eta iraganeko kide-tza, bizi den lurraldearen eta gurasoen asoziazionismoaren arabera (%)



Las personas jóvenes cuyos progenitores están asociados también presentan mayores registros de pertenencia (actual y pasada) a este tipo de asociaciones.

GRÁFICO 24.

Pertenencia actual y pasada a asociaciones juveniles o de tiempo libre, según territorio de residencia y asociacionismo de los progenitores (%)

Azkenik, aipatu behar da elkarre-mota honetako kide gehienak beste erakunde-mota bateko kide ere badirela (% 85,3).

Por último, hay que señalar que la gran mayoría de quienes pertenecen a este tipo de asociaciones también son miembros de otros tipos de entidades (85,3 %).

2.2.5. Elkarre kulturalak edo artistikoak

Euskadiko gazteen % 9,9 elkarre kultural edo artistiko bateko kide da. Beste % 7,9 kide izan zen iraganeko, baina orain ez.

Goi-mailako ikasketak egiten ari diren edo bukatu dituzten gazteak derrigorrezko bigarren maila osteko ikasketak egin dituztenek baino neurri handiagoan hartzen dute parte elkarre-mota hauetan (% 11,3 eta % 7,0, hurrenez hurren).

Gizarte-mailari dagokionez, beren burua klase altu edo ertain-altukotzat daukatenen partaidetzak (% 18,7) bikoiztu egiten du maila ertainekoak (% 8,5) edo maila baxu edo ertain-baxukoak (% 7,7) direla dioten aldean.

2.2.5. Asociaciones culturales o artísticas

Un 9,9 % de la juventud de Euskadi pertenece a alguna asociación cultural o artística. Otro 7,9 % perteneció anteriormente pero ya no.

Las personas jóvenes con estudios superiores (finalizados o en curso) tienen unos niveles de pertenencia a este tipo de asociaciones ligeramente superiores a los de quienes han cursado como máximo estudios secundarios postobligatorios (11,3 % y 7,0 %, respectivamente).


La juventud que se declara de clase social alta o media-alta duplica los porcentajes de pertenencia a este tipo de asociaciones (18,7 %) de quienes se consideran de clase media (8,5 %) o de clase baja o media-baja (7,7 %).

Politikan interes handia edo nahikoa interes dutenek ere interes gutxi edo batere interesik ez dutenek baino partaidetza-maila altuagoa dute; kasu horretan batzuk besteak halako hiru dira (% 14,8 eta % 5,3).

Azkenik elkarreetako kide izandako gurasoen seme-alaben parte-hartzea altuagoa da inoiz elkarte bateko kide izan ez diren gurasoen seme-alaben aldean (% 16,0 eta % 6,2, hurrenez hurren).

25. GRAFIKOA.

Elkarte kultural edo artistikoetako gaur egungo eta iraganeko kideak, gizarte-maila subjektiboaren eta gurasoen asoziazionismoaren arabera (%)



Quienes muestran mucho o bastante interés por la política también presentan mayores niveles de afiliación a este tipo de asociaciones que quienes se declaran poco o nada interesados en la política; en este caso la relación entre uno y otro colectivo es casi del triple (14,8 % frente a 5,3 %).

Por último, aquellas personas jóvenes que señalan que sus progenitores están o estaban asociados presentan mayores niveles de pertenencia a este tipo de asociaciones que las personas jóvenes cuyos progenitores nunca se han asociado (16,0 % y 6,2 %, respectivamente).

GRÁFICO 25.

Pertenencia actual y pasada a asociaciones culturales o artísticas, según clase social subjetiva y asociacionismo de los progenitores (%)

Elkarte-mota hauetako kide diren gazteen % 80 beste elkarte mota bateko kide ere badira.

El 80 % de la juventud miembro de este tipo de asociaciones lo es también de algún otro tipo.

2.2.6. Osasunari edo osasun-laguntzari lotutako elkarteak

Gazteen % 7,1 osasunari edo osasun-laguntzari lotutako elkarte bateko kide da. Beste % 5,6 kide izan zen iraganean, baina ez gaur egun. Eta gehiengo zabal bat (% 87) ez da inoiz elkarte mota honetako kide izan.

Partaidetza zerbait handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino (% 8,6 eta % 5,7, hurrenez hurren).

2.2.6. Asociaciones relacionadas con la salud o la asistencia sanitaria

El 7,1 % de la juventud pertenece a alguna asociación relacionada con la salud o la asistencia sanitaria. Otro 5,6 % perteneció anteriormente, pero ya no. Y la gran mayoría (87 %) no ha pertenecido nunca a ninguna asociación de este tipo.

Las mujeres jóvenes se inclinan algo más que los hombres jóvenes por pertenecer a este tipo de asociaciones (8,6 % y 5,7 %, respectivamente).

20 eta 24 urte arteko adin-tarteko gazteak dira mota honetako elkarteetan partaidetza handiena dutenak (% 9,9).


Goi-mailako ikasketak dituztenen edo egiten ari direnen artean osasunarekin lotutako elkarteetako parte-hartzea (% 8,4) ikasketa-maila apalagoa dutenena baino altuago da (% 4,3).

Gizarte-mailan gora egin ahala, gora egiten du ere elkarte-mota hauetako partaidetza-portzentajeak: % 4,0koa maila baxu edo ertain-baxukoaren artean, % 7,4koa maila ertainekoen artean eta % 8,8 beren buruan maila altuan edo ertain-altuan ikusten dutenen artean.

Gurasoak elkarte bateko kide baziren, gora egiten du gazteen partaidetzak (% 10,7, elkarte bateko kide ez ziren gurasoen seme-alaben % 4,7ren aurrean).

26. GRAFIKOA.

Osasunarekin eta osasun-laguntzarekin lotutako elkarteetako gaur egungo eta iraganeko kideetza, ikasketa-mailaren eta gurasoen asoziazionismoaren arabera (%)



Osasunari edo osasun-laguntzari lotutako elkarteetako kideen bi herenak (% 67,1) beste elkarte-mota bateko kide ere badira.

El grupo de edad comprendido entre los 20 y los 24 años es el que presenta mayores porcentajes de pertenencia a este tipo de asociaciones (9,9 %).

Entre quienes tienen estudios superiores (finalizados o en curso) los porcentajes de pertenencia a asociaciones relacionadas con la salud (8,4 %) son superiores a los registrados entre quienes no alcanzan este nivel de estudios (4,3 %).

A medida que aumenta la clase social de las personas jóvenes también es mayor la adhesión a este tipo de asociaciones: 4,0 % entre quienes son de clase baja o media-baja, 7,4 % entre las y los de clase media y 8,8 % entre quienes se consideran de clase alta o media-alta.

Cuando los progenitores pertenecen a alguna asociación aumenta el porcentaje de jóvenes miembros de las asociaciones relacionadas con la salud (10,7 % frente al 4,7 % entre aquellas personas jóvenes cuyos progenitores no pertenecen a asociaciones).

GRÁFICO 26.

Pertenencia actual y pasada a asociaciones relacionadas con la salud o la asistencia sanitaria, según nivel de estudios y asociacionismo de los progenitores (%)

Dos tercios de los miembros de las asociaciones relacionadas con la salud o la asistencia sanitaria (67,1 %) son miembros de más de una asociación.

2.2.7. Giza-eskubideen inguruko elkarteak, elkarte pazifistak, feministak, LGTB...

Hamar gaztetik bat izan da giza-eskubideen elkarte bateko kide, orain edo iraganean. Horren barruan kokatzen ditugu erakunde pazifistak; feministak; gay, lesbiana, transexual edo bisexualen eskubideen aldekoak, eta abar. Zehazkiago, gazteen % 6,1 horrelako elkarte bateko kide da, eta beste % 3,9 kide izandakoa da.

Goi-mailako ikasketak egin dituztenen edo egiten ari direnen partaidetza handiago da (% 7,1), bigarren mailako ikasketak, derrigorrezkoak zein derrigorrezkoen ondokoak, dituztenena baino (% 3,8).

Horrelako elkarteetan parte-hartzea zabalduagoa dago, halaber, politikan interes handia edo nahikoa interes duten gazteen artean (% 9,7), interes gutxi edo batere interesik ez dutela dioten datuekin alderatuz gero (% 2,8).

Gizarte-mailak desberdintasun handiak sortzen ditu kasu honetan ere, gizarte-mailan gora egin ahala elkarte hauetan parte-hartzen duten gazteen portzentajeak gora egiten duelarik (% 9,6koa maila altu edo ertain-altukoak direla dioten artean eta % 4,4koa maila baxu edo ertain-baxukoak direla dioten artean). Halere, oraingo eta iraganeko datuak batuta, ikusten dugu maila altu edo ertain-altukoak direnen datuak (% 11,8) eta maila baxu edo ertain-baxukoak direla dioten datuak (% 12,3) ia berdinak direla. Izan ere, azken talde horretan egungo partaidetza txikia izan arren, iraganeko parte-hartze portzentajeak nahiko altuak dira.

Desberdintasunak daude, halaber, gurasoen asoziazionismo-mailarekin: elkarte bateko kide ziren gurasoen seme-alaben % 11,6 dira giza eskubideen, pazifismoaren, feminismoaren edo LGTB kolektiboaren eskubideen defentsako elkarte bateko kide, baina portzentaje hori % 3,3koa baino ez da elkarte bateko kide ez ziren gurasoen seme-alaben kasuan.

2.2.7. Asociaciones de derechos humanos, pacifistas, feministas, LGTB...

Una de cada diez personas jóvenes mantiene o ha mantenido una relación de pertenencia con alguna asociación de derechos humanos, pacifista, feminista, relacionada con los derechos de las lesbianas, gays, transexuales o bisexuales, etc. Más concretamente un 6,1 % pertenece actualmente a alguna asociación de este tipo y otro 3,9 % perteneció anteriormente pero ya no.

Actualmente la juventud con estudios superiores (finalizados o en curso) tiene mayor presencia en estas asociaciones (7,1 %) que quienes tienen estudios secundarios obligatorios o postobligatorios (3,8 %).


La pertenencia a este tipo de asociaciones también es más común entre la juventud muy o bastante interesada en la política (9,7 %) que entre quienes manifiestan tener poco o ningún interés en los asuntos políticos (2,8 %).

La clase social nuevamente marca diferencias destacadas, de modo que a medida que se incrementa el nivel social también lo hace la pertenencia a este tipo de asociaciones (9,6 % entre las y los jóvenes de clase alta o media-alta frente al 4,4 % entre quienes dicen ser de clase baja o media-baja). Si agregamos los datos de pertenencia actual y pasada, observamos que las cifras prácticamente se igualan entre quienes son de clase alta o media-alta (11,8 %) y quienes son de clase social baja o media-baja (12,3 %) y es que este último grupo, pese a tener bajos porcentajes de pertenencia actual, presenta relativamente altos porcentajes de pertenencia pasada.

También hay diferencias en función de si los progenitores están asociados o no: cuando los progenitores pertenecen a alguna asociación el porcentaje de jóvenes miembros de asociaciones relacionadas con los derechos humanos, pacifistas, feministas, en favor de los derechos del colectivo LGTB... es del 11,6 %; cuando los progenitores no pertenecen a ninguna asociación el porcentaje de jóvenes miembros de este tipo de asociaciones cae al 3,3 %.

27. GRAFIKOA.

Giza-eskubideen, pazifismoaren, feminismoaren, LGTBen eskubideen aldeko elkarteetako gaur egungo eta iraganekeo kideetza, gizarte-maila subjektiboaren, politikarekiko interesaren eta gurasoen asoziazionismoaren arabera (%)

**GRÁFICO 27.**

Pertenencia actual y pasada a asociaciones de derechos humanos, pacifistas, feministas, LGTB..., según clase social subjetiva, interés por la política y asociacionismo de los progenitores (%)

Elkarte hauetako kideen % 84,2 beste elkarte-mota bateko kide ere bada.

El 84,2% de los miembros de estas asociaciones pertenecen a alguna otra asociación de distinto tipo.

2.2.8. Ikasleen elkarte edo mugimenduak

Gazteen % 4,2 da ikasleen erakunde edo mugimendu bateko kide, haien esanetan. Beste % 16,7k dio iraganean elkarte-mota honetako kide izandakoa dela.

Nabarmentzekoa da 15 eta 19 urte artekoen kasua. Izan ere, adin-talde horretan % 96k ikaslea dela esan arren, gehiago dira iraganean ikasle-erakunde bateko kide izandakoak (% 15,2) gaur egun kide direnak baino (% 6,7). Horren arrazoia protesta- edo aldarrikapen-testuinguru zehatzetan sortutako ikasle-mugimenduetan egon daiteke (hezkuntza-legearen, selektibitatearen edo unibertsitate-tasen aurka edo instalazioak, garraio-zerbitzuak eta abar eskatzeko), mugimendu horietako askok ez dutelako denboran luzez irauten.

2.2.8. Organizaciones o movimientos estudiantiles

El 4,2 % de las personas jóvenes dice pertenecer actualmente a alguna organización o movimiento estudiantil. Otro 16,7 % dice haber pertenecido anteriormente a alguna asociación de este tipo.


Destaca que en el colectivo de 15 a 19 años, donde el 96 % declara ser estudiante, sean bastantes más quienes señalan haber sido miembros de alguna organización o movimiento estudiantil en el pasado (15,2 %) que quienes dicen serlo en el presente (6,7 %). Ello puede deberse a la activación de determinados movimientos estudiantiles en periodos o contextos de protesta o reclamación (contra la ley de educación, la selectividad, las tasas universitarias, petición de instalaciones, servicios de transporte...), sin mucha trayectoria temporal.

Adinak aurrera egin ahala, behera egiten du ikasleen erakundeetako partaidetzak, eta 25 urtetik gorakoen artean % 1,6koa baino ez da.

Gizarte-mailari dagokionez, berriz ere, klase altu edo ertain-altuko gazteek parte-hartze handiagoa izaten dute (% 7,7). Halere, desberdintasunik handiena eragiten duen aldagaia politikarekiko interesa da. Hala, politikan interes handia edo nahikoa interes dutenen partaidetza-tasa (% 6,0) interes gutxi edo batere interesik ez dutenen parte-hartzearen (% 2,6) bikoitza da.

28. GRAFIKOA.

Ikasleen elkarte eta mugimenduen gaur egungo eta iraganeko kideetza, adin-taldean eta politikarekiko interesaren arabera (%)



A medida que se incrementa la edad descende la pertenencia actual a organizaciones y movimientos estudiantiles hasta reducirse al 1,6 % entre quienes superan los 25 años.

La clase social, por su parte, nuevamente muestra una mayor adhesión de la juventud de clase alta o media-alta (7,7 %). Pero la diferencia es más destacada si nos fijamos en el interés por la política: el porcentaje de pertenencia a movimientos estudiantiles de la juventud con interés en la política (6,0 %) duplica el del colectivo poco o nada interesado (2,6 %).

GRÁFICO 28.

Pertenencia actual y pasada a organizaciones o movimientos estudiantiles, según grupos de edad e interés por la política (%)

Elkarte eta mugimendu hauetako kideen % 94,3 beste elkarte-mota bateko kide ere bada.

El 94,3 % de las y los miembros de este tipo de organizaciones y movimientos también pertenecen a algún otro tipo de asociación.

2.2.9. Elkarre politikoak, alderdi politikoak edo alderdietako gazteriak

Euskadiko gazteen % 3,9 baino ez da elkarre politiko, alderdi politiko edo alderdi baten gazterietako kide. Beste % 2,6k dio iraganean kide izandakoa dela.

Datu hauek ez dira harritzekoak. Izan ere, elkarriketatutako gazteei alderdi politikoengan duten konfiantzaz galdetu diegunean, ikusi dugu batez besteko emaitza 3,3koa zela Otik 10erako eskala, hau da, aprobazetik dezente urrun geratzen zirela.

Alderdi politikoengan konfiantza dutenen artean (hau da, bostetik gorako puntuazioa ematen dietenen artean) zabalduago dago mota honetako elkarreetan parte hartzea (% 8,4) alderdiegan konfiantzarik ez duten gazteekin alderatzen badugu (% 1,6).

Alderdiekiko konfiantzaz gain, politikarekiko interesa da beste aldagai erabakigarri bat: interesa duten gazteen % 7,0 da elkarre hauetako kide, politikan interes gutxi edo batere interesik ez dutenen % 0,9ren aldean.

Familia-ereduak ere badu eraginik, eta asoziatutako gurasoak dituzten gazteen afiliazioa elkarreetako kide ez diren gurasoak dituzten gazteen afiliazioaren bikoitza da (% 5,7 eta % 2,5, hurrenez hurren).

Azkenik, goi mailako ikasketak dituzten gazteek presentzia handiagoa dute alderdi politikoetan (% 4,5) lehen edo bigarren mailako ikasketak dituztenek baino (% 2,4).

Alderdi edo elkarre politiko bateko kide diren bost gaztetik batek dio elkarre horretako kide bakarrik dela. % 79,7ko gehiengo zabal batek, ordea, beste mota bateko elkarteren bateko kide ere badela dio.

2.2.9. Asociaciones políticas, partidos políticos o juventudes de partidos

Sólo un 3,9 % de la juventud pertenece a alguna asociación política, partido político o sección joven de algún partido. Otro 2,6 % dice haber pertenecido anteriormente pero ya no.

Estas cifras bajas no son de extrañar cuando, como hemos visto, al preguntar a las mismas personas jóvenes entrevistadas por su confianza en los partidos políticos, éstos obtienen una puntuación media de 3,3 en una escala de 0 a 10, esto es, quedan bastante lejos del aprobado.

Entre quienes confían en los partidos políticos (les otorgan una puntuación de cinco o más puntos) hay mayores porcentajes de pertenencia a este tipo de asociaciones (8,4 %) que entre quienes no confían en ellos (1,6 %).

Al igual que la confianza en los partidos, otra variable decisiva en la pertenencia a asociaciones políticas es el interés por la política: el 7,0 % de la juventud interesada pertenece a alguna asociación de este tipo, frente al 0,9 % entre quienes tienen poco o ningún interés.

El modelo familiar nuevamente presenta alguna diferencia, de modo que entre aquellas personas jóvenes cuyos progenitores están asociados la afiliación a partidos o asociaciones políticas duplica la de aquellos y aquellas jóvenes cuyos progenitores no están asociados (5,7 % y 2,5 %, respectivamente).

Por último, las personas jóvenes con estudios superiores tienen mayor presencia en los partidos o asociaciones políticas (4,5 %) que quienes cuentan con estudios primarios o secundarios (2,4 %).


Una de cada cinco personas jóvenes miembro de alguna asociación política o partido político señala que únicamente pertenece a dicha asociación. Sin embargo, un mayoritario 79,7 % afirma pertenecer a varios tipos de asociaciones simultáneamente.

29. GRAFIKOA.

Erakunde politiko, alderdi politiko edo alderdietako gazterietako gaur egungo eta iraganekeo kideetza, politikarekiko interesaren eta alderdi politikoenganako konfiantzaren arabera (%)

GRÁFICO 29.

Pertenencia actual y pasada a asociaciones políticas, partidos políticos o juventudes de partidos, según interés en la política y confianza en los partidos políticos (%)



2.2.10. Sindikatuak, enpresarien edota profesionalen elkarteak

Sindikatueta eta enpresarien edo profesionalen elkarteetako afiliazioa zertxobait txikiagoa da: % 3,6. Gainera, % 1,6k dio iraganean kide izandakoa dela.

Sindikatu edo enpresarien eta profesionalen elkarteetako kideetan eragin handiena duen aldagaia okupazio nagusia da, eta % 8,1eraino heltzen da lanean ari diren pertsonen artean.

Gora egiten du, halaber, adinean aurrera egin ahala. Horrela, 20 urtetik beherakoen artean % 0,9koa bada ere, % 6,2ra iristen da 25-29 urte dituztenen artean.

Sindikatuerekiko konfiantza (4,2, Otik 10erako eskalan) eta sindikatu eta enpresari edo profesionalen elkarteetako afiliazioa alderatuz gero, ez da desberdintasun handirik ikusten 5etik gorako puntuazioa ematen dietenen artean (% 4,6) eta 5etik beherako puntuazioa ematen dietenen artean (% 3,1).

2.2.10. Sindicatos, asociaciones empresariales o profesionales

La afiliación a organizaciones sindicales, empresariales o profesionales es ligeramente menor, 3,6 %. Y otro 1,6 % señala haber pertenecido anteriormente pero no en la actualidad.

La pertenencia actual a sindicatos o asociaciones empresariales o profesionales viene determinada, fundamentalmente, por la ocupación principal y así alcanza el 8,1 % entre quienes están trabajando.


También se incrementa con la edad, de modo que pasa de un 0,9 % entre las y los menores de 20 años al 6,2 % entre quienes tienen de 25 a 29 años.

Si ponemos en relación la confianza en los sindicatos (que alcanza, de media, un 4,2 en la escala de 0 a 10) con la pertenencia a sindicatos y asociaciones profesionales, vemos que en este caso apenas hay diferencias de afiliación entre quienes otorgan una puntuación superior o inferior al 5; entre los primeros pertenece a este tipo de asociaciones un 4,6 % y entre los segundos un 3,1 %.

Elkarte politikoen kasuan gertatzen zen bezalaxe, ikasketa-mailak eta gurasoen asoziazionismoak badu eragina nolabait sindikatueta edo enpresarioen eta profesionalen elkarteetako afiliazioan.

30. GRAFIKOA.

Sindikatueta edo enpresarioen eta profesionalen elkarteetako gaur egungo eta iraganeko kideetza, okupazio nagusiaren, ikasketa-mailaren eta gurasoen asoziazionismoaren arabera (%)



Elkarte hauetako kide gehienak badira beste elkarte-mota bateko kide ere (% 68,9), baina fenomeno hori ez dago beste kasu batzuetan bezain zabaldia.

2.2.11. Elkarre ekologistak edo kontsumo ekologikoenak

Elkarre ekologista edo kontsumo ekologikoen elkarteetako kideetza-maila ere baxua da (% 3,2 gaur egun eta % 3,8 iraganeko). Azken urteetan gisa honetako elkarteak ugaltzen diren arren, egia da produktuak ekoizletik kontsumitzailearengana zuzenean eramaten dituzten elkarre hauetan parte hartzeko hautua emantzipatuta egoteagatik etxeko erosketak kudeatzen dituzten pertsonak egiten dutela. Gainera, kostua ohiko elikagaiena baino altuagoa izan ohi da eta, ondorioz, baliabide ekonomikoak beharrezkoak dira. Ikertzen ari garen adin-talde gaztearen emantzipatu direnak gutxi dira, eta baliabide ekonomikoak prekarioak.

Al igual que ocurre con la pertenencia a asociaciones políticas, el nivel de estudios y el asociacionismo de los progenitores influye en cierta medida en la afiliación a las organizaciones sindicales o profesionales.

GRÁFICO 30.

Pertenencia actual y pasada a sindicatos, asociaciones empresariales o profesionales, según ocupación principal, nivel de estudios y asociacionismo de los progenitores (%)

En este caso también es mayoritario (68,9 %) el porcentaje de miembros de este tipo de asociaciones que afirman pertenecer a varios tipos de asociaciones, si bien no es tan abultado como en otros casos.


2.2.11. Asociaciones ecologistas o de consumo ecológico

La pertenencia a asociaciones ecologistas o de consumo ecológico también es escasa (3,2 % actualmente y 3,8 % anteriormente). Pese a que en los últimos años están proliferando las asociaciones o grupos de consumo de productos ecológicos, es cierto que la determinación de optar por este tipo de consumo directo del productor al cliente suele corresponder a personas emancipadas que gestionan las compras del hogar y que disponen de ciertos recursos económicos suficientes para asumir un gasto que, normalmente, suele ser más elevado. En el tramo de edad joven que estamos estudiando el porcentaje de personas emancipadas es escaso y sus recursos económicos precarios.

Portzentajeak kasu guztietan txikiak badira ere, ikusten dugu parte-hartzea pixka bat handiagoa dela politikan interes handia edo nahikoa interes dutenen artean eta elkarreketako kide ziren gurasoen seme-alaben artean.

31. GRAFIKOA.

Elkarte ekologiko edo kontsumo ekologikoen taldeetako gaur egungo eta iraganeko kideetza, politikarekiko interesaren eta gurasoen asoziazionismoaren arabera (%)



Elkarte ekologikoen edo kontsumo ekologikoen taldeetako kideen % 78,6 beste elkarte mota bateko kide ere bada.

Aunque los porcentajes son pequeños en todos los casos, en este tipo de asociaciones se aprecia una ligera mayor presencia de jóvenes con mucho o bastante interés en la política y de personas cuyos progenitores también están asociados.

GRÁFICO 31.

Pertenencia actual y pasada a asociaciones ecologistas o de consumo ecológico, según interés por la política y asociacionismo de los progenitores (%)

2.2.12. Talde erlijiosoak edo parrokiako taldeak

Talde erlijioso edo parrokiako taldeetako kide diren gazteen portzentajea eta alderdi politiko, sindikatu edo profesionalen elkarte, talde ekologista edo kontsumo ekologikoen taldeetako kide direnena oso antzekoak dira eta gaur egun % 3,0koa da (beste % 5,6k iraganeko kide izan zela dio).

Esan behar da, edonola ere, posible dela elizari lotutako gazte- edo aisialdi-elkarreketan edo giza eskubideen aldeko taldeetan egondako gazteek bigarren talde horietako kide bezala erantzun izana (taldearen ekintza-aldorrean edo helburuen arabera, alegia), taldeen izaera erlijiosoak ezagutu gabe.

Adinak aurrera egin ahala behera egiten du talde erlijiosoetako kide diren gazteen kopuruak (% 4,7, 20 urte baino gutxiago dituzten gazteen artean eta

El 78,6 % de los miembros de las asociaciones ecologistas o de consumo ecológico afirman pertenecer a más asociaciones.

2.2.12. Grupos religiosos o parroquiales

El volumen de jóvenes que dicen pertenecer a grupos religiosos o parroquiales es similar al registrado en el caso de los partidos políticos, sindicatos o asociaciones profesionales y asociaciones ecologistas o de consumo ecológico, y se cifra en un 3,0 % actualmente (otro 5,6 % dice haber sido miembro anteriormente pero ya no).

Hay que señalar, en cualquier caso, que jóvenes miembros de grupos juveniles, de tiempo libre, de derechos humanos... ligados a la iglesia, pueden haber señalado pertenecer a esos tipos de grupos (de acuerdo al ámbito de actuación o los objetivos de la asociación), y no reconocerlos como grupos religiosos.

A medida que desciende la edad son más las y los jóvenes que pertenecen a algún grupo religioso o parroquial (4,7 % entre las personas menores de 20 años y 1,7 % entre quienes

% 1,7, berriz, 25 urtetik gorakoen artean). Izan ere, adin-talde gazteenean daude katekesi- eta sendotza-taldeak.


Arabaren beste lurraldeetan baino gazte gehiagok hartzen du parte horrelako taldeetan. Gipuzkoan aurkitzen ditugu parte-hartze daturik baxuenak.

Gurasoak asoziatuta daudenean handiagoa da talde erlijiosoetako edo parrokiako taldeetako partaidetza (% 4,7) gurasoak asoziatu gabe daudenean baino (% 1,8).

Alabaina, elizarekiko konfiantza da aldagairik erabakigarriena. Gazteriarri elizarekiko konfiantzaz galdetzerakoan, 2,3 puntuko puntuazioa eman diote 0tik 10erako eskalan. Baina gazteak elizari 5eko puntuazioa baino gehiago edo gutxiago eman dioten arabera sailkatzen ditugunean, ikusten dugu 5etik gorako puntuazio ematen dioten % 9,4 talde erlijiosoetako kide dela, eta 5etik beherako puntuazioa ematen dioten artean % 1,0koa baino ez.

32. GRAFIKOA.

Talde erlijiosoetako edo parrokiako taldeetako gaur egungo eta iraganeko kideetza, bizi den lurraldearen eta elizarenganako konfiantzaren arabera (%)



Talde hauetako kideen % 84,7 beste elkarte-mota bateko kide ere bada.

superan los 25 años). Y es que en el colectivo de menor edad se concentrarían los grupos de catequesis y confirmación.

En Álava hay mayor porcentaje de jóvenes en este tipo de grupos o asociaciones que en el resto de territorios. En Gipuzkoa se dan los porcentajes de pertenencia más bajos.

Cuando los progenitores están asociados también hay mayores porcentajes de pertenencia a grupos religiosos o parroquiales (4,7 %) que cuando los progenitores no están asociados (1,8 %).

Pero, sin duda, la variable que más influye es la confianza en la Iglesia. Al preguntar a la juventud por su confianza en la Iglesia, ésta recibe un 2,3 de media en una escala de 0 a 10. Pero al distribuir a la juventud entre quienes le otorgan una confianza superior o inferior al 5 (en términos de aprobado o suspenso), vemos que entre quienes le dan una puntuación superior al 5 el porcentaje de pertenencia a grupos religiosos es del 9,4 %, frente al 1,0 % de quienes le otorgan una puntuación inferior al 5.

GRÁFICO 32.

Pertenencia actual y pasada a grupos religiosos o parroquiales, según territorio de residencia y confianza en la Iglesia (%)

El 84,7 % de la juventud miembro de estos grupos afirma pertenecer también a otros tipos de asociaciones.

2.2.13. Gaztetxeetara joatea

Gaztetxeetara joatea ezin da elkarte bateko kide izatea bezala kontsideratu, baina alboratu ezineko fenomeno da Euskadiko gazteez ari garenean.

Gaztetxeak autogestionatutako zentro sozialak dira, sarritan okupatutako eraikinetan kokatuak, eta bizitza kulturala sortu eta dinamizatu nahi duten gazteek antolatzen dituzte. Bertan bildu ohi dira gazte asanbladak, hau da, gazteen arazoei, arazo sozialei eta politikoei buruz eztabaidatzeko, ekintzak antolatzeko eta beste hainbat gauzatarako elkartzen diren gazteen kolektiboak.

Parte hartzeko dinamika oso irekia da eta eskaintzen diren ekintzek gazte asko bertaratzeara lortzen dute, kontzertu, tailer, hitzaldi eta abarretara joanez. Hori dela-eta, gaztetxeko kide diren baino gaztetxeetara joan diren galdetu diegu gazteei, gaur egun eta iraganean horrelako lokaletara joan diren gazteen portzentajea bildu nahian.

Euskadiko gazteen % 27,1ek dio gaur egun gaztetxeetara joaten dela eta beste % 25,4k iraganean joan izan dela.

Gizon gazteak emakume gazteak baino gehiago joan ohi dira gaztetxeetara (% 30,1 eta % 23,9, hurrenez hurren).

Politikan interes handia edo nahikoa interes dutenen portzentajeak bikoiztu egiten du ia interes gutxi edo batere interesik ez dutenena (% 36,0 lehen taldean eta % 19,0 bigarreanean).

Gizarte-maila altu edo ertain-altukoak direla uste dutenak gehiago joaten dira gaztetxeetara (% 32,5) maila ertainekoak (% 26,6) edo maila baxu edo ertain-baxukoak direla diotenak baino (% 24,1).

Asoziatutako gazteak asoziatu gabekoak baino dezente gehiago joaten dira gaztetxeetara (% 37,4 eta % 13,3, hurrenez hurren).

2.2.13. La asistencia a gaztetxes

La asistencia a gaztetxes no puede ser considerada pertenencia a una asociación, pero es un hecho que no podemos obviar cuando hablamos de grupos de jóvenes en Euskadi.

Los gaztetxes pueden definirse como centros sociales autogestionados y en muchos casos “okupados” por jóvenes que tratan de crear y dinamizar la vida cultural. Suelen servir de sede de las “gazte asanbladas”, colectivos de jóvenes que se reúnen para debatir sobre problemáticas juveniles, sociales y políticas, organizar actos...

La dinámica de participación es muy abierta y su oferta de actividades hace que muchas personas jóvenes tomen parte en los actos que organizan asistiendo a conciertos, talleres, charlas, etc. Por ello en lugar de preguntar por la pertenencia se ha preguntado por la asistencia, intentando recoger el porcentaje de jóvenes que en la actualidad acuden o antes acudían a estos locales.

El 27,1 % de la juventud vasca afirma ir a gaztetxes en la actualidad y otro 25,4 % haber ido en el pasado.

Los hombres jóvenes acuden a gaztetxes en mayor medida que las mujeres jóvenes (30,1 % y 23,9 %, respectivamente).

Quienes tienen mucho o bastante interés en la política casi duplican los porcentajes de asistencia de quienes están poco o nada interesados en este tema (36,0 % el primer grupo frente a 19,0 % el segundo).

Quienes se consideran de clase social alta o media-alta acuden a gaztetxes en mayor medida (32,5 %) que quienes se consideran de clase social media (26,6 %) o media-baja o baja (24,1 %).


La juventud asociada acude a a gaztetxes en bastante mayor medida que la juventud no asociada (37,4 % frente a 13,3 %).

33. GRAFIKOA.

Gaztetxeetara gaur egun eta iraganean joatea, sexuaren, politikarekiko interesaren eta elkarteetako kide izaren arabera (%)

GRÁFICO 33.

Asistencia actual y pasada a gaztetxes, según sexo, interés por la política y pertenencia a asociaciones (%)



Izan ere, gaur egun gaztetxeetara joaten diren gazteek presentzia handiagoa dute elkarte-mota gehienetan, zehazkiago, kirol-elkarteetan edo mendi-taldeetan (% 33,3), gazte-lokaletan (% 31,9), dibertimenduzko elkarteetan (% 24,0), gazte-elkarteetan edota aisialdikoetan (% 22,7), elkarte kultural eta artistikoetan (% 19,8), giza-eskubideen, pazifismoaren, feminismoaren edo LGTBren eskubideen aldeko elkarteetan (% 10,8), ikasleen elkarte eta mugimenduetan (% 7,7), elkarte politikoetan (% 7,3) eta elkarte ekologikoetan edo kontsumo ekologikoen elkarteetan (% 6,3).

Asoziatutako gurasoak dituzten gazteak batez bestekoa baino gehiago joaten dira gaztetxeetara.

Y es que las personas jóvenes que actualmente acuden a gaztetxes tienen mayor presencia que la media en la mayoría de los tipos de asociaciones, más concretamente, en las asociaciones deportivas o de montaña (33,3 %), en las lonjas y locales juveniles (31,9 %), en las sociedades recreativas (24,0 %), en las asociaciones juveniles o de tiempo libre (22,7 %), en las culturales y artísticas (19,8 %), en las asociaciones de derechos humanos, pacifistas, feministas, LGTB (10,8 %), en las organizaciones y movimientos estudiantiles (7,7 %), en las asociaciones políticas (7,3 %) y en las ecologistas o de consumo ecológico (6,3 %).

Las y los jóvenes cuyos progenitores están asociados también acuden a gaztetxes más que la media.

2.3. ELKARTEETAKO KIDE IZATEKO ERAGILEAK

Elkarte-mota guztietako kide-tza-ereduak aztertu eta gero, esan dezakegu hauek direla elkarte bateko kide izateko garaian eragin handiena duten baldintzak, oro har: adina, gizarte-maila, politikarekiko interesa eta familiaren erreferentzia.

Sexuagatiko desberdintasunak oso handiak dira kirol-elkarteen eta gazte-lokalen kasuan. Bi kasu horietan mutilen presentzia neskena baino askoz handiagoa da eta horrek galdera bat planteatzera garamatza: bi elkarte-mota horiek kontuan izan gabe, badago desberdintasunik nesken eta mutilen asoziazio-mailaren artean?

Analisi hori eginda, ikusten dugu elkarteetako parte-hartzearen portzentajeak berdindu egiten direla kirol-elkarteak eta gazte-lokalak kenduta: % 38,0 gizon gazteen kasuan eta % 38,6 emakume gazteen kasuan.

Adinak eragina du elkarte-mota batzuetan, baina ez guztietan. Adin-tarte gazteenean ohikoagoa da kirol-elkarteetako, gazte-lokaletako, gazte- edo aisialdi-taldeetako, ikasleen elkarteetako eta talde erlijiosoetako kide izatea. Adinak aurrera egin ahala, jaitsi egiten da parte-hartzea aipatutako talde horietan eta igo sindikatuetan eta profesionalen elkarteetan.

Bere burua gizarte-maila altuan edo ertain-altuan kokatzen duten gazteek presentzia handiagoa dute elkarte guztietan, erakunde politikoetan, sindikaletan, profesioaletan, ekologistetan eta erlijiosoetan izan ezik. Talde horietan ez da gizarte-mailaren araberrako aldaketarik nabari.

Aitzitik, politikarekiko interesak desberdintasun handiak eragiten ditu alderdi politikoetako eta erakunde ekologistetakofiliazioan eta baita giza-eskubideen elkarteetako, elkarte kulturaletako, dibertimenduzko elkarteetako eta ikasleen elkarteetako partaidetzan ere.

Azkenik, asoziatutako gurasoen seme-alabek gehiagofartzen dute parte elkarte-mota guztietan, gazte-lokaletan izan ezik. Badirudi azken hauetan familiaren erreferentziak ez duela eraginik.

2.3. LOS CONDICIONANTES DE LA PERTENENCIA A ASOCIACIONES

A la vista de los datos resultantes del análisis de la pertenencia a los distintos tipos de asociaciones, podemos concluir que las variables que más condicionan la pertenencia a asociaciones, en general, son la edad, la clase social, el interés por la política y la referencia familiar.

Las diferencias por sexo son destacadas en el caso de las asociaciones deportivas y las lonjas o locales juveniles, donde hay mucha mayor presencia de chicos que de chicas, ante lo que cabría plantearse una pregunta: si eliminamos estos tipos de asociaciones de la clasificación ¿se apreciaría tal diferencia?

Tras realizar dicho análisis se constata que los porcentajes de pertenencia a asociaciones quedan prácticamente iguales en ambos sexos al eliminar la incidencia de las asociaciones deportivas y de las lonjas y locales juveniles: 38,0 % en el caso de los hombres jóvenes y 38,6 % en el de las mujeres jóvenes.

La edad incide en algunos tipos de asociaciones, pero no en todos. En el estrato más joven es más frecuente la pertenencia a asociaciones deportivas, lonjas y locales juveniles, asociaciones juveniles o de tiempo libre, organizaciones estudiantiles y grupos religiosos. A medida que se incrementa la edad descende la vinculación a las asociaciones mencionadas y aumenta la afiliación a sindicatos o asociaciones profesionales.

La juventud que se define de clase social alta o media-alta tiene mayor presencia en las asociaciones, con excepción de las políticas, sindicales o profesionales, ecologistas y religiosas (en estos casos no se aprecian diferencias en función de la clase social).

Por el contrario, el interés por la política sí marca diferencias destacadas en la afiliación a partidos, a asociaciones ecologistas, y también en la pertenencia a asociaciones de derechos humanos, culturales, recreativas y estudiantiles.

Por último, las personas jóvenes cuyos progenitores están asociados presentan mayores frecuencias de pertenencia a todos los tipos de asociaciones, a excepción de las lonjas o locales juveniles, en los que parece no incidir el referente familiar.

3. TAULA.

Elkarteetako kidetza, gizarte-maila subjektiboaren, politikarekiko interesaren eta gurasoen asoziazionismoaren arabera (%)

TABLA 3.

Pertenencia a asociaciones, según clase social subjetiva, interés por la política y asociacionismo de los progenitores (%)

ELKARTEETAKO KIDETZA PERTENENCIA A ASOCIACIONES (%)*		Maila soziala Clase social			Politikarekiko interesa Interés por la política		Gurasoen elkartegintza Asociacionismo de los progenitores	
Elkarte mota Tipos de asociaciones	Guztira Total	Altua + Ertain-altua Alta + Media-alta	Ertaina Media	Ertain-baxua + Baxua Media-baja + Baja	Oso + Nahikoa Mucho + Bastante	Gutxi + Batere ez Poco + Nada	Guraso asoziatuak Progenitores asociados	Guraso ez asoziatuak Progenitores no asociados
Kirol elkarte edo klubak, mendi taldeak Deportivas, de montaña	23,9	31,7	23,8	12,7	26,7	21,2	28,5	21,0
Gazteen lonjak edo lokalak Lonjas o locales juveniles	20,2	23,6	20,1	15,2	22,5	18,4	19,1	20,7
Dibertimendurako taldeak (peñak, konpartsak, blusak, elkarte gastronomikoak...) Recreativas (peñas, comparsas, blusas, sociedades gastronómicas...)	12,7	15,6	11,8	13,6	17,2	8,5	17,1	10,4
Gazteen elkarteak edo aisialdiko taldeak Juveniles, de tiempo libre	12,3	19,4	11,3	10,8	14,3	10,5	15,5	10,6
Kulturalak edo artistikoak Culturales o artísticas	9,9	18,7	8,5	7,7	14,8	5,3	16,0	6,2
Osasunari edo osasun-laguntzari lotutakoak Relacionadas con la salud o la asistencia sanitaria	7,1	8,8	7,4	4,0	7,9	6,6	10,6	4,7
Giza-eskubideen ingurukoak, pazifistak, feministak, LGTB... De derechos humanos, pacifistas, feministas, LGTB...	6,1	9,6	5,7	4,4	9,7	2,8	11,6	3,3
Ikasleen elkarte edo mugimenduak Estudiantiles	4,2	7,7	3,5	4,3	6,0	2,6	5,7	3,3
Politikoak, alderdiak edo alderdietako gazteriak Políticas, partidos o juventudes de partidos	3,9	4,3	3,8	4,2	7,0	0,9	5,7	2,5
Sindikatuak, enpresarien edota profesionalen elkarteak Sindicales, profesionales o empresariales	3,6	3,0	4,0	2,9	4,3	3,1	5,4	2,5
Elkarte ekologista edo kontsumo ekologikoenak Ecologistas o de consumo ecológico	3,2	3,1	3,3	2,8	4,5	1,9	5,7	1,8
Erlijosak edo parrokiako taldeak Religiosas o parroquiales	3,0	2,9	3,1	2,3	3,1	2,8	4,7	1,8
Beste elkarte motak / Otro tipo	1,3	2,5	1,2	0,6	1,2	1,5	1,4	1,4

* Zutabeetako emaitzen batura 100 baino handiagoa da era berean hainbat elkarteren kide izatea posible delako /

La suma de las columnas es superior a 100 porque se puede pertenecer a varios tipos de asociaciones simultáneamente.

Eskolako erreferentziak (“Zure ikastetxean ikasleen iritzia kontuan hartzen zen edo kontuan hartzen da” esaldiarekiko adostasun-mailarekin neurtua), inguru partiziboetako sozializazio-forma bezala, edo elkarte zaharkitzapenari buruzko iritziak (“Elkartek zaharkituta geratzen ari diren erakundeak dira” esaldiarekiko adostasun-mailak) ez dira eragin handiko aldagaiak elkarteetako kide izaterako orduan, hasieran bestela pentsatu genuen arren.

Pertsonenganako konfiantzak badu eragina elkarteetako parte-hartzean, baina ez gizarte-mailak, politikarekiko interesak edo familiaren erreferentziak bezainbeste.

2.4. INPLIKAZIOA ELKARTEETAN

Elkarte-mota bakoitzeko kide diren gazteen kopurua zehaztu eta gero, orain ikusiko dugu zer elkarteetan dagoen inplikazio handiagoa, zein den elkarteetako parte-hartzearen gradua eta maiztasuna eta zeintzuk diren elkarteetan parte hartzeko arrazoiak.

2.4.1. Inplikazio handieneko elkartek

Euskal gazteen erdia aldi berean hainbat elkarte kide dela kontuan hartuta, jakin nahi dugu zer elkartetan inplikatzeko diren gehiago. Horretarako, gutxienez elkarte bateko kide diren gazteei (gazte guztien % 57,3) galdetu diegu zein elkartetan dauden inplikatuak, galdera ireki baten bitartez, hau da, erantzunik iradoki gabe.

Kirol-elkartek eta mendi-taldeek lortzen dute gazteen inplikaziorik handiena. Gazteen laurdenak baino zerbait gehiagok (% 27,9k) dio kirol-elkarteetan inplikatzeko dela gehien. Kirola egiteko maiztasunak (gazteen erdiak baino gehiagok dio astero hainbatetan egiten duela kirola¹⁰) eta kirolarekin lotutako txapelketetan parte hartzeak, normalean klub edo elkarte baten baitan, denbora asko eskatzen dute eta, ondorioz, gazteek beste elkartei baino dedikazio eta inplikazio gehiago eskaini behar dizkiete kirol elkartei.

10 BILBAO (2014), *ob. cit.*

La referencia escolar (medida por el grado de acuerdo con la afirmación “en tu centro de estudios se tiene o se tenía en cuenta la opinión de las y los estudiantes”), como forma de socialización en contextos participativos, o la opinión sobre la obsolescencia de las asociaciones (acuerdo con que “las asociaciones son instituciones que se están quedando anticuadas”), que se presumían inicialmente como variables con incidencia en el nivel de pertenencia a asociaciones, no muestran ninguna influencia en ser o no ser miembro de los distintos tipos de asociaciones propuestos.

La confianza en la gente, en general, sí incide en una mayor pertenencia a asociaciones, aunque no se dan diferencias tan destacadas como las determinadas por la clase social, el interés por la política o el referente familiar.

2.4. IMPLICACIÓN EN ASOCIACIONES

Una vez cuantificado cuántos jóvenes dicen ser miembros de cada tipo de asociación, a continuación vamos a señalar en qué asociaciones hay mayor implicación, cuál es el grado y la frecuencia de la participación en asociaciones, así como cuáles son los principales motivos para participar en asociaciones.

2.4.1. Asociaciones con mayor implicación

Teniendo en cuenta que la mitad de la juventud asociada pertenece o es miembro de varias asociaciones simultáneamente, nos planteamos conocer en qué tipo de asociaciones se implica en mayor medida. Para ello se ha preguntado a todas las personas jóvenes que pertenecen a alguna asociación (57,3 % del total de jóvenes) cuál es la asociación en la que están más implicadas, planteándolo como una pregunta abierta, esto es, sin sugerir ninguna respuesta.

Las asociaciones deportivas o de montaña son aquellas en las que las personas jóvenes se implican más. Algo más de una cuarta parte de la juventud asociada (27,9 %) señala que su mayor implicación es para con las asociaciones deportivas. La frecuencia de la práctica deportiva (más de la mitad de la juventud señala practicar deporte varios días por semana¹⁰), generalmente asociada a algún club o asociación, la participación en competiciones ligadas al deporte, etc., hacen que este tipo de asociaciones absorban más tiempo que otras y, por lo tanto, requieran mayor dedicación e implicación por parte de la juventud.

10 BILBAO (2014), *ob. cit.*

Antzeko zerbait gertatzen da gazteen inplikazioa eragiten duen beste elkarte-motan: gazte-lokaletan, hain zuzen ere. Gazteen % 18,5ek dio erakunde horretan daudela inplikatuak.

2013an Gazteen Euskal Behatokiak gazte-lokalei buruz egin zuen ikerketa baten arabera¹¹, kideen % 85ek dio astebururo joaten direla lokalera, % 90ek funtzionatzeko arauak ezartzen direla eta egitekoak banatzen direla eta % 93k erabaki garrantzitsuak lokaleko kide guztien artean hartzen direla. Hori guztia dela-eta, askotan joateaz gain, inplikazioa eskatzen dute bileretan, lokalaren kudeaketan, etab.

Inplikazio handia eragiten duen hirugarren elkarte-mota gazteen elkarteek eta aisialdi-taldeek osatzen dute (gazteen % 11,6k aipatzen ditu). Izan ere, elkarte hauek antolatzen dituzten irteerak eta jarduerak kideen aisialdiaren zati handi bat hartzen dute.

Zerrenda osatzen dute, inplikazio altuenetik baxuenera, elkarte kultural edo artistikoak (% 8,3), dibertimendurako elkarteak (konpartsak, peñak, blusak...) edo elkarte gastronomikoak (% 6,5), gaztetxeak (% 5,3), osasunarekin edo osasun-laguntzarekin lotutako elkarteak (% 5,2), giza-eskubideen, pazifismoaren, feminismoaren edo LGTB kolektiboaren aldeko elkarteak (% 4,1), erakunde politikoak (% 3,4), talde erlijiosoak edo parrokiako taldeak (% 2,5), sindikatu edo elkarte profesionalek (% 2,2) elkarte ekologistek edo kontsumo ekologikoen elkarteak (% 2,2) eta, azkenik, ikasleen elkarte edo mugimenduek (% 1,3).

Elkarte horretan inplikatuak daudela dioten elkarteetako kideen portzentajeari erreparatuz, inplikazioaren “fidelizazio” maila aztertu dezakegu.

Algo similar cabe decir del segundo tipo de asociaciones en las que las personas jóvenes dicen tener mayor implicación: las lonjas o locales juveniles. El 18,5 % de la juventud asociada señala que ésta es la organización o asociación en la que está más implicada.

De acuerdo a un estudio específico sobre lonjas y locales juveniles en la Comunidad Autónoma Vasca, realizado en 2013 por el Observatorio Vasco de la Juventud¹¹, el 85 % de los miembros de las lonjas dice asistir a ellas todos los fines de semana, un 90 % afirma que se establecen normas de funcionamiento y reparto de tareas y un 93 % señala que las decisiones importantes se toman entre todos los miembros de las lonjas. Todo ello conlleva, además de la frecuencia de asistencia, la implicación en reuniones, en la gestión de la lonja, etc.

El tercer tipo de asociación en el que la juventud se implica más es el correspondiente a las asociaciones juveniles o de tiempo libre (el 11,6 % de la juventud asociada las menciona). Y es que las salidas o actividades organizadas por este tipo de asociaciones ocupan gran parte del tiempo libre de las personas jóvenes asociadas a las mismas.

La lista se completa, de mayor a menor implicación, con las asociaciones culturales o artísticas (8,3 %), las sociedades recreativas (comparsas, peñas, blusas...) o gastronómicas (6,5 %), los gaztetxes (5,3 %), las asociaciones relacionadas con la salud o la asistencia sanitaria (5,2 %), las asociaciones de derechos humanos, pacifistas, feministas, ligadas al colectivo LGTB... (4,1 %), las asociaciones políticas (3,4 %), los grupos religiosos o parroquiales (2,5 %), los sindicatos o asociaciones profesionales (2,2 %), las asociaciones ecologistas o de consumo ecológico (2,2 %) y, por último, las organizaciones o movimientos estudiantiles (1,3 %).

Atendiendo al porcentaje de miembros de cada tipo de asociación que mencionan dicho tipo como la asociación en la que están más implicados o implicadas, podemos analizar el grado de “fidelización” de la implicación.

¹¹ CORCUERA, Nieves; BILBAO, Miren eta LONGO, Oskar (2013). *Gazteen lonjak eta lokalak EAEn*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

¹¹ CORCUERA, Nieves; BILBAO, Miren y LONGO, Oskar (2013). *Lonjas y locales juveniles en la CAPV*. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. Vitoria-Gasteiz.

Elkarte-mota bakoitzeko kide diren gazteek inplikazio gehien duten elkarte-mota (%)

Tipo de asociación en el que hay mayor implicación por parte de la juventud asociada a cada tipo de asociación (%)

[illegible]

Kideen aldetik inplikazio handiena lortzen duten elkarteak dira kirol-elkarteak, gazte-lokalak, gazte-edo aisialdi-elkarteak eta erakunde politikoak (alderdi politikoak edo alderdien gazteriak); lau kasu horietan kideen % 50ek baino gehiagok aipatzen du elkarte hori inplikatuena dagoen elkarteari buruz galdetzen zaionean.

Kirol-elkarteetako kideen bi herenek (% 67,1) diote horietan daudela inplikatuena. Gazteen elkarteetako edo aisialdi-taldeetako, gazte-lokaletako eta erakunde politikoetako kideen erdiak esaten du elkarte horietan inplikatuena direla gehien (% 53,6, % 52,3 eta % 50,7, hurrenez hurren).

% 40tik gorako erantzunak jasotzen ditugu kideen eskutik beste lau elkartetan inplikatuena dauden elkarteari buruz galdetzen dugunean: talde erlijiosoak edo parrokiako taldeak (% 48,5), elkarte kultural edo artistikoak (% 47,8), osasunarekin edo osasun-zaintzarekin lotutako elkarteak (% 42,0) eta elkarte ekologistako edo kontsumo ekologikoenak (% 40,4).

Inplikazio-mailarik apalena pizten duten elkarteak ikasleena dira: kideen % 17,7k bakarrik dio elkarte horietan daudela inplikatuena.

Aldagai soziodemografikoei erreparatuz gero, ikusten da gizonak eta 20 urtetik beherakoak daudela bereziki inplikatu kirol-elkarteetan eta gazte-lokaletan. Bi elkarte hauetan ez beste guztietan, inplikazio-maila handiena beti emakumeek edo 20 urtetik gorakoek dute (salbuespen bakarrak dira sindikatueta eta elkarte profesionaletan, non gizonak emakumeak baino gehiago inplikatu diren, eta talde erlijiosoetan edo parrokiako taldeetan, non 20 urtetik beherakoak diren inplikatuena).

Bizi diren lurraldeari dagokionez, aipatu behar dugu Araban eta Gipuzkoan gazteria inplikatuago dagoela kirol-elkarteetan Bizkaian baino; Bizkaian, aldiz, Araban edo Gipuzkoan baino inplikazio gehiago ikusten da gazte-lokaletan. Gainera, Gipuzkoan inplikatuena dira gehien gazteak dibertimenduzko elkarteetan edo elkarte gastronomikoetan, eta Araban dago elkarte ekologistetan edo kontsumo ekologikoen elkarteetan inplikatuena dauden gazte kopururik handiena.

Las asociaciones en las que más se implican sus miembros son las deportivas, las lonjas, las asociaciones juveniles o de tiempo libre y las asociaciones políticas (partidos políticos o juventudes de partidos); en los cuatro tipos se registran porcentajes superiores al 50 % al preguntar a todos y todas las jóvenes que dicen ser miembros de dicho tipo de asociaciones en cuál están más implicados o implicadas.

Dos tercios de los miembros de las asociaciones deportivas (67,1 %) dicen ser éstas las asociaciones en las que están más implicados o implicadas. En torno a la mitad de los miembros de las asociaciones juveniles o de tiempo libre (53,6 %), de las lonjas o locales juveniles (52,3 %), y de las asociaciones políticas (50,7 %) afirman que esas son las asociaciones en las que tienen mayor implicación.

Más del 40 % de las y los miembros de las asociaciones religiosas o parroquiales (48,5 %), de las culturales o artísticas (47,8 %), de las relacionadas con la salud o la asistencia sanitaria (42,0 %) o de las asociaciones ecologistas o de consumo ecológico (40,4 %) también señalan la asociación de referencia como aquella en la que tienen mayor implicación.

La menor implicación se produce en relación a las asociaciones estudiantiles: tan sólo un 17,7 % de sus miembros las señalan como aquellas en las que están más implicados.

En cuanto a la incidencia de variables sociodemográficas, se aprecia que los hombres jóvenes y las y los menores de 20 años están especialmente implicados en las asociaciones deportivas y en las lonjas y locales juveniles, con los que los porcentajes de mención del resto de asociaciones son menores que los señalados por las mujeres jóvenes o por quienes tienen más de 20 años (las únicas excepciones se aprecian en relación a las asociaciones sindicales o profesionales, en las que se implican más los chicos que las chicas, y las asociaciones religiosas o parroquiales, en las que hay mayor implicación de jóvenes menores de 20 años).


En cuanto al territorio de residencia, se puede mencionar que en Álava y Gipuzkoa la juventud está más implicada en las asociaciones deportivas que en Bizkaia; en Bizkaia, por el contrario, se registra mayor implicación que en Álava o Gipuzkoa en las lonjas o locales. Además, Gipuzkoa es el territorio donde es mayor la implicación juvenil en las sociedades recreativas o gastronómicas y Álava donde más jóvenes señalan estar especialmente implicados en las asociaciones ecologistas o de consumo ecológico.

2.4.2. Elkarreetako parte-hartze maila

Asoziatutako gazteei inplikaturik dauden elkarreetako parte-hartze mailari buruz galdetzen diegunean, hamarretik seik (% 61,3) diote sarritan hartzen dutela parte, % 34,3k noizean behin parte hartzen duela eta % 3k onartzen du ez duela parte hartzen. % 3 hori lehen bai baina dagoeneko parte hartzen ez dutenen (% 1,8) eta inoiz parte hartu izan ez dutenen artean (% 1,2) banatzen da. Gainerako % 1,4k ez du erantzun.

34. GRAFIKOA.

Gazte asoziatuen parte-hartze maila inplikazio gehieneko elkarrean (%)



Zenbat eta elkarre gehiagotako kide izan, orduan eta handiagoa da inplikaturik dauden elkarrean sarritan parte hartzen dutela dioten gazteen portzentajea; horrela, hiru elkarre edo gehiagotako kide direnen % 75,2k sarritan hartzen du parte, elkarre bakarreko kide direnen % 51,3ren aurrean. Ondoriozta dezakegu, hortaz, gazte parte-hartzaileagoak direla, bai kide diren elkarreen kopuruarengatik nola horietan erakusten duten inplikazioarengatik.

Gehien inplikaturik diren elkarre kirol-elkarre bat dela diotenek, gainerakoek baino gehiagotan esaten dute sarritan hartzen dutela parte bertan (% 77,8). Gazte-lokaletan inplikaturik daudenek batez bestekoaren gainetik hartzen dute parte sarritan (% 61,3). Azkenik, bestelako elkarreetan inplikaturik daudenek batez bestekoaren azpitik hartzen dute parte sarritan (% 52,6).

2.4.2. Grado de participación en las asociaciones

Al preguntar a la juventud asociada por su grado de participación en la asociación en la que dice estar más implicada, seis de cada diez (61,3 %) afirman participar de forma habitual, un 34,3 % dice participar ocasionalmente y tan sólo un 3 % reconoce no participar. Este 3 % se reparte entre quienes antes participan pero ya no (1,8 %) y quienes no han participado nunca en la asociación (1,2 %). Otro 1,4 % no responde.

GRÁFICO 34.

Grado de participación en la asociación en la que la juventud asociada tiene mayor implicación (%)

Cuanto mayor es el número de asociaciones a las que se pertenece mayor es el porcentaje de jóvenes que afirman participar de forma habitual en aquella en la que tienen mayor implicación; así el 75,2 % de quienes pertenecen a tres o más asociaciones participan habitualmente, frente al 51,3 % de quienes pertenecen a una única asociación. Podemos concluir, por tanto, que se trata de jóvenes con un perfil más participativo, tanto por volumen de asociaciones de pertenencia como por implicación en las mismas.


Quienes señalan que la asociación en la que tienen mayor implicación es de carácter deportivo participan de forma más habitual (77,8 %) que el resto. Quienes están especialmente implicados o implicadas en las lonjas participan de forma habitual en la misma proporción que la media (61,3 %). Por último, quienes están más implicados en otros tipos de asociaciones presentan menores porcentajes de participación habitual (52,6 %) que la media.

35. GRAFIKOA.

Gazte asoziatuen parte-hartze maila, kide den elkarte kopuruaren eta inplikazio gehieneko elkarte-motaren arabera (%)

GRÁFICO 35.

Grado de participación de la juventud asociada, según número de asociaciones de pertenencia y tipo de asociación de mayor implicación (%)



Lehen aipatu dugun bezala, kirol-txapelketetan parte hartzeak eta horrek dakarren asteroko entrenamendu eta partiduek eta gazte-lokaletako asistentziaren maiztasunak, sarritan parte hartzea dakarte, definizioz ia.

Mutilek, 20 urtetik beherakoek eta ikasleek hartzen dute parte sarritan gehien, talde horietan ohikoagoa baita kirol-elkarte eta gazte-lokaletako kide izatea.

Azkenik, asoziatutako gurasoak dituzten gazteek gehiago hartzen dute parte sarritan (% 66,9) asoziatu gabeko gurasoen seme-alaben aldean (% 56,0).

Como hemos comentado anteriormente, la práctica deportiva de competición, que incluye sesiones de entrenamiento (además de partidos) todas las semanas, así como la frecuencia de asistencia a las lonjas, conlleva una participación habitual casi por definición.

Los chicos, las y los menores de 20 años y las y los estudiantes son quienes presentan mayores porcentajes de participación habitual debido al mayor peso de la implicación en asociaciones deportivas y lonjas en estos colectivos.

Por último, las personas jóvenes cuyos progenitores también están asociados presentan mayores niveles de participación habitual (66,9 %) que aquellos y aquellas jóvenes cuyos progenitores no están asociados (56,0 %).

2.4.3. Elkarreetako parte-hartzearen maiztasuna

Elkarreetan sarritan edo noizean behin parte hartzen duten gazte asoziatuei parte-hartzearen maiztasunaz galdetzen diegunean, erdiak baino gehiagok (% 57,1) esaten digute astero hartzen dutela parte. % 26,8k dio hilean behin edo gehiagotan hartzen duela parte. % 12,7k dio hilabetean behin baino gutxiagotan hartzen duela parte eta gainerako % 3,4k ez du erantzun.

Kirol-elkarreetan inplikatuak daudenek hartzen dute parte astero gehien (% 74,8), gazte-lokaletan inplikatuak daudenak bigarren lekuan daudelarik (% 70,5). Inplikaziorik handiena ez kirol-elkarreetan ez gazte-lokaletan baizik eta bestelako elkarreetan dutenen parte-hartzearen maiztasuna (eta, seguruenik, elkarreeta beraren funtzionamendua) denboran banatuagoa da: % 42,8k dio astero hartzen duela parte, % 34,9k hilero eta % 19k maiztasun gutxiagorekin.

Kirol-elkarreeta eta gazte-lokaletako parte-hartzearen maiztasun handiagoari lotuta, ikusten dugu asteroko parte-hartzea zabalagoa dela mutilen, 20 urtetik beherakoen, ikasleen eta goi-mailako ikasketak ez dituztenen artean.

Edonola ere, gurasoak asoziatuta daudenean asteroko parte-hartzea batez bestekoaren gainetik dago (% 63,3).

Azkenik, zenbat eta elkarreeta gehiagoko kide izan, orduan eta zabalduago dago asteroko parte-hartzea inplikazio gehieneko elkarreetan (% 67,1 hiru elkarreeta edo gehiagoko kide direnen artean eta % 49,7koa elkarreeta bakar bateko direnen artean).

2.4.3. Frecuencia de la participación en asociaciones

Al preguntar a la juventud asociada que dice participar en la asociación de forma habitual u ocasional con qué frecuencia se da esa participación, más de la mitad (57,1 %) señala que ésta es semanal. Un 26,8 % afirma participar una o varias veces al mes. Otro 12,7 % dice participar con una frecuencia inferior a la mensual y el 3,4 % restante no responde.

Quiénes están especialmente implicados o implicadas en asociaciones deportivas son quienes más dicen participar todas las semanas (74,8 %), seguidos de quienes tienen mayor implicación en las lonjas o locales juveniles (70,5 %). Entre quienes señalan que la asociación en la que tienen mayor implicación no es de carácter deportivo ni es una lonja, la frecuencia de participación (y seguramente de funcionamiento de la propia asociación) es más dilatada en el tiempo: el 42,8 % dice participar semanalmente, otro 34,9 % mensualmente y otro 19 % con menor frecuencia.

Ligado a la mayor frecuencia de participación de quienes tienen mayor implicación en asociaciones deportivas y en lonjas, observamos que la frecuencia semanal está más extendida que la media entre los chicos, quienes tienen menos de 20 años, las y los estudiantes y quienes no alcanzan los estudios superiores.

En cualquier caso, cuando los progenitores también están asociados la frecuencia de participación semanal es superior a la media (63,3 %).


Por último, a mayor número de asociaciones de pertenencia, mayor es la frecuencia de participación semanal en aquella asociación en la que hay mayor implicación (67,1 % entre quienes pertenecen a tres o más asociaciones frente al 49,7 % entre las y los que pertenecen a una única asociación).

36. GRAFIKOA.

Gazte asoziatuen parte-hartzearen maiztasuna, kide den elkarte kopuruaren eta inplikazio gehieneko elkarte-motaren arabera (%)

GRÁFICO 36.

Frecuencia de la participación de la juventud asociada que participa, según número de asociaciones de pertenencia y tipo de asociación de mayor implicación (%)



Oinarria: Asoziatutako gazteak
Base: Juventud asociada

2.4.4. Elkarteetan parte hartzeko motibazioak

Oinarrizkoa da elkarteetan parte hartzen den bitartean gozatzea, eta horrela ikusi dugu sarritan edo noizean behin parte hartzen duten asoziatutako gazteei hori egiteko dituzten arrazoiez galdetu diegunean. Gazteen erdiak (% 52,0) esan digu ondo pasatzeko, lagunak egiteko, etab., egiten duela, hots, arrazoi ludiko edo erlazionalengatik.

Gainerako erantzunak bi talde ia berdinetan banatzen dira. Batetik, beste arrazoi pertsonalak dauzkagu, hala nola, osasuna, curriculum hobetzeko ezagutzak eskuratzea, kontaktuak egitea, etab. (argumentu utilitaristak edo nolabaiteko ordaina bilatzen dutenak: % 23,7) eta bestetik, inguruaren (kultura, ingurugiroa, hezkuntza...) edo beste pertsonen egoera hobetzeko arrazoiak (arrazoi etiko edo ideologikoak: % 20,0).

Esan behar dugu elkarriketatutako pertsona bakoitzak bi erantzun eman zitzaizkela eta portzentajeak, ondorioz, jasotako erantzun guztien gainean kalkulatu direla.

2.4.4. Motivaciones para participar en asociaciones

Disfrutar personalmente mientras se participa en la asociación es fundamental y, así se constata al preguntar a la juventud asociada que participa habitual u ocasionalmente por sus motivaciones para hacerlo. La mitad de las respuestas (52,0 %) indican que lo hacen por pasarlo bien, hacer amistades, etc., esto es, argumentos lúdicos o relacionales.


El resto de las respuestas se dividen, casi por igual, entre reconocer que también se participa por otras cuestiones personales como son la salud, adquirir conocimientos prácticos para mejorar el currículum, hacer contactos, etc. (argumentos utilitaristas o de búsqueda de compensaciones: 23,7 %) y señalar que se hace para mejorar la situación del entorno (cultural, medioambiental, educativo...) o de otras personas (motivación ética o ideológica: 20,0 %).

Hay que indicar que cada persona entrevistada podía aducir dos razones, por lo que los porcentajes se han calculado respecto del total de respuestas dadas.

37. GRAFIKOA.

Elkarteetan parte hartzen duten gazte asoziatuen parte hartzeko arrazoiak (%)

Desberdintasunak badaude parte hartzeko arrazoiaren gazteak inplikazio gehien duen elkarte-motaren arabera, baina norberaren gozamenak garrantzi handia du guztietan.

**GRÁFICO 37.**

Motivos para participar en las asociaciones por parte de la juventud asociada que participa (%)

El tipo de asociación en el que está más implicada la persona joven muestra diferencias importantes en relación a los motivos para participar, si bien en todos ellos destaca el disfrute personal.

- **Gozamen pertsonala**
Disfrute personal
- **Beste arrazoi pertsonalak**
Otras cuestiones personales
- **Inguruaren edo beste pertsonen egoera hobetu**
Mejora del entorno u otras personas
- **Ed-Ee / Ns-Nc**
- **Beste arrazoi bat**
Otra motivación

Oinarria: Sarritan edo noizean behin parte hartzen duten asoziatutako gazteak

Base: Juventud asociada que participa en la asociación de forma habitual u ocasional

Gazte-lokaletan parte hartzeko arrazoiak % 77,0 arrazoi ludiko edo erlazionalak dira, hau da, norberaren gozamenekoak (ondo pasa, lagunak egin...).

Kirol-elkarteetan parte hartzeko arrazoiak, norberaren gozamenekoak % 58,8 dira, eta gainerako % 32,2 arrazoi pertsonal utilitaristak dira, hala nola, osasuna zaintzea, kontaktuak egitea, curriculum hobetzea, kredituak lortzea, diru-ordain bat lortzea...

Bestelako elkarteetara dagokienez, parte hartzeko arrazoiak banatuago daude: % 41,6 norberaren gozamenarekin lotuta daude, % 30,6 inguruaren edo beste pertsonen egoera hobetzeari lotuta eta % 22,6 gozamen hutsekoak ez diren arrazoi pertsonalei lotuta (kontaktuak egitea, curriculum...).


El 77,0 % de las razones para participar en las longas se agrupan bajo el epígrafe lúdico o de socialidad, esto es, el disfrute personal (pasarlo bien, hacer amigos o amigas...).

En el caso de las razones para participar en las asociaciones deportivas, el disfrute personal engloba el 58,8 % de las respuestas y otro 32,2 % corresponde a otras razones personales más utilitaristas o de búsqueda de compensaciones, como son la salud propia, hacer contactos, mejorar el currículum, conseguir créditos de estudios, algún tipo de remuneración...

En cuanto al resto de asociaciones, las razones para participar en las mismas están más repartidas: un 41,6 % corresponden al disfrute personal, un 30,6 % a intentar mejorar la situación del entorno o de otras personas y un 22,6 % a otras razones personales no ligadas al mero disfrute (hacer contactos, currículum...).

38. GRAFIKOA.

Parte hartzen duten gazte asoziatuen parte-hartzearen motibazioak, inplikazio gehieneko elkarte-motaren arabera (%)

**GRÁFICO 38.**

Motivaciones para participar de la juventud asociada que participa, según tipo de asociación de mayor implicación (%)

Oinarria: Sarritan edo noizean behin parte hartzen duten asoziatutako gazteak
Base: Juventud asociada que participa en la asociación de forma habitual u ocasional

Gazte-lokaletan mutil eta 20 urtetik beherako pertsona gehiago ibiltzen direnez, parte hartzeko arrazoiak aztertzerakoan ikusten da talde horiek norberaren gozamena gehiagotan aipatzen dutela neskek edo 20 urtetik gorakoek baino.

Ingurua edo beste pertsonen egoera hobetzearen argumentu etiko edo ideologikoa maizago aipatzen dute neskek, 20 urtetik gorakoek, goi-mailako ikasketak dituztenek, politikan interesatutako gazteek eta guraso asoziatuak dituztenek.

Ligado a la mayor presencia en las lonjas de los chicos y de la juventud menor de 20 años, al analizar los argumentos dados por estos colectivos se aprecia que hay mayores menciones del disfrute personal que entre las chicas o que entre quienes tienen más de 20 años.

Los mayores porcentajes de mención del argumento ético o ideológico de intentar mejorar la situación del entorno o de otras personas se recogen entre las chicas, quienes superan los 20 años, quienes tienen estudios superiores, las personas jóvenes interesadas en la política y aquellas cuyos progenitores también están asociados.

2.5. ELKARTEETAKO PARTE-HARTZEAREN INDIZEA

Gaur egungo elkarteetako kideztza eta parte-hartze gradua oinarri hartuta, elkarteetako parte-hartzearen indize bat sortu dugu, Euskadiko gazteek elkarteetan duten inplikazio-maila islatzeko.

Indizeak euskal gazteria hiru taldetan banatzen du:


- Elkarte bateko kide izan eta bertan sarritan parte hartzen dutenak: Euskadiko gazteen herena baino pixka bat gehiago daude talde honetan, % 35,1, eta elkarteetan aktiboa den gazteria dela esan dezakegu.

- Gaur egun elkarte bateko kide izan arren noizean behin bakarrik parte hartzen dutenak: gazteen % 19,7 dago elkarteetan semiaktiboa den gazteriaren talde honetan.

- Elkarte bateko kide izan baina parte hartzen ez dutenak (hau da, kideztza pasiboa dutenak) eta gaur egun elkarte bateko kide ez direnak (iraganean kide izandakoak eta inoiz kide izan ez direnak batzen dituen taldea): hau da talderik jendetsuena, gazte guztien % 45,2 biltzen duena. Elkarteekin loturarik ez duten gazteak dira.

39. GRAFIKOA.

Elkarteetako parte-hartze indizea (%)



Esan beharra dago talde hauek ez direla kategoría itxiak eta orain sarritan parte hartzen duen norbait noizean behin parte hartzera pasa daitekeela edo orain asoziatuta ez dagoen gazte bat elkarte bateko kide izatera pasa daitekeela, adibide batzuk jartzearren. Aldaketa horiek edozein norabidetan gerta daitezke, eta hortaz denboran zer eboluzio jasaten duten aztertu beharko da. 2015ean

2.5. ÍNDICE DE PARTICIPACIÓN EN ASOCIACIONES

A partir de la medición de la pertenencia actual y del grado de participación en las asociaciones, hemos elaborado un índice de participación en asociaciones que pretende resumir el grado de implicación de la juventud vasca en las mismas.

El índice consta de tres categorías que distribuyen a la juventud en tres grupos:

- Quienes pertenecen actualmente a alguna asociación y participan de forma habitual en ella: suponen algo más de un tercio de la juventud, 35,1 %, y se puede catalogar como juventud activa en asociaciones.

- Quienes pertenecen actualmente a alguna asociación pero sólo participan de forma ocasional: 19,7 % de las personas jóvenes que se corresponden con la juventud semiactiva en asociaciones.

- Quienes pertenecen a alguna asociación pero no participan en ella (esto es, tienen una pertenencia pasiva) y quienes no pertenecen a ninguna asociación en este momento (aunque puedan haber pertenecido en el pasado): suponen el grupo más numeroso, que aglutina al 45,2 % de las y los jóvenes. Se trata de la juventud desactivada respecto a las asociaciones.

GRÁFICO 39.

Índice de participación en asociaciones (%)

- **GAZTERIA AKTIBOA:**
Kide da eta sarritan parte hartzen du
JUVENTUD ACTIVA:
Pertenece y participa habitualmente
- **GAZTERIA SEMIAKTIBOA:**
Kide da eta noizean behin parte hartzen du
JUVENTUD SEMIACTIVA:
Pertenece y participa ocasionalmente
- **GAZTERIA DESAKTIBATUA:**
Ez da kide edo ez du parte hartzen
JUVENTUD DESACTIVADA:
No pertenece o no participa

Hay que señalar que estas categorías no son compartimentos estancos y quien ahora participa de forma habitual puede pasar a hacerlo de forma ocasional, y enmarcarse así en otra categoría, o quien ahora no pertenece a ninguna asociación puede pasar a ser miembro activo de alguna, por poner algunos ejemplos. Los trasvases pueden producirse en cualquier dirección y en cualquier momento, por lo que habrá que analizar su evolución

lehen taldea, elkarreetan aktiboak diren eta sarritan parte hartzen duten gazteena, alegia, zabalagoa da mutilen artean (% 40,4) nesken artean baino (% 29,6), mutilak kirol-elkarreetan eta gazte-lokaletan gehiago ibiltzen direlako, hainbatetan errepikatu dugun bezala.

Berdina esan liteke adinari buruz. Gazteenek kirol gehiago egiten dute eta gazte-lokaletan gehiago ibiltzen dira eta horrek parte-hartze indizean aldaketak eragiten ditu; Gazteria aktiboak 20 urte baino gutxiago dituztenen artean du pisurik handiena (% 43,9), eta gero adinarekin batera behera egiten doa (% 28,8, 25 urte baino gehiago dituztenen artean).

Elkarreetan aktiboak diren gazteen taldea zerbait handiagoa da Araban (% 39,5) eta Gipuzkoan (% 38,6) Bizkaian baino (% 31,6).

Gizarte maila altu edo ertain-altuko gazte gehiago daude gazteria aktiboaren taldean (% 42,3) eta portzentajeak behera egiten du gizarte-maila subjektiboarekin batera (% 29,0koa da beren burua maila baxu edo ertain-baxukoa dela dioten artean).

Azkenik, nabarmendu dezakegu politikan interesa duten gazteak edo guraso asoziatuak dituztenak elkarreetako parte-hartze aktiboko portzentaje altuagoak dituztela (% 40,2 eta % 44,4, hurrenez hurren) politikan interesik ez dutenekin eta familia-erreferentziarik ez dutenekin alderatuta.

en el tiempo. En 2015 el primer colectivo, correspondiente a la juventud activa en asociaciones, esto es, quienes pertenecen a alguna asociación y participan en ella de forma habitual, es más abultado entre los chicos (40,4 %) que entre las chicas (29,6 %) debido a, como ya se ha repetido reiteradamente, la mayor implicación de los chicos en las asociaciones deportivas y en las lonjas.

Lo mismo puede decirse de la edad, la mayor práctica deportiva entre los y las más jóvenes y su mayor presencia en las lonjas hacen que también se detecten diferencias en el índice de participación en asociaciones; el peso de la juventud activa entre las y los menores de 20 años es mayor (43,9 %) para ir descendiendo a medida que se incrementa la edad (28,8 % entre las y los mayores de 25 años).

El colectivo de personas jóvenes activas en asociaciones también es algo más destacado en Álava (39,5 %) y Gipuzkoa (38,6 %) que en Bizkaia (31,6 %).

La juventud de clase alta o media-alta presenta mayores porcentajes de juventud activa (42,3 %), que posteriormente descenden a medida que también lo hace la clase social subjetiva (29,0 % entre quienes se definen de clase baja o media-baja).


Por último, puede señalarse que la juventud interesada en la política y aquella cuyos progenitores están asociados tienen mayores porcentajes de participación activa en asociaciones (40,2 % y 44,4 %, respectivamente) que la juventud sin interés en la política o sin referencia familiar en asociacionismo.

40. GRAFIKOA.

Elkarreetako parte-hartze indizea, politikarekiko interesaren eta gurasoen asoziazionismoaren arabera (%)

GRÁFICO 40.

Índice de participación en asociaciones, según interés por la política y asociacionismo de los progenitores (%)






3.

BOLUNTARIOTZA ETA BOLUNTARIO-LANAK

VOLUNTARIADO Y TRABAJOS VOLUNTARIOS



Kapitulu honi hasiera emango diogu “boluntariotza” terminoaren definizioarekin.

Boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen arabera ¹², boluntariotza pertsona fisikoek aurrera eramaten duten interes orokorreko ekimen-multzoa izango litzateke (interes orokorreko zat jotzen diren ekimenak honakoak dira: gizartearen edo pertsonaren onerako lan egiteko konpromisoa dutenak, esparrua edozein dela ere: gizartea, komunitatea, hiria, kultura, garapena, ingurugiroaren babesa edo antzekoa), betiere ondoko baldintzak betetzen badituzte:

- a) Norberaren probetxurako ezer lortzeko asmorik gabekoak izatea eta elkartasunak bultzatuak izatea.
- b) Borondatezkoak eta askatasun osoz eginak izatea; arrazoia lan-, funtzionariotza- edo merkataritza-harremana ez izatea, ez eta obligazio pertsonala edo betebeharr juridikoa ere.
- c) Irabazi-asmorik ez duten erakundeen bidez eta programa edo egitasmo zehatzei jarraiki eginak izatea.
- d) Ordainsaririk gabeak izatea.
- e) Ordaindutako zerbitzu profesionalak inolaz ere ez ordezkatzeko.

Vamos a comenzar este capítulo con una definición de qué se entiende por voluntariado.

De acuerdo a la Ley 17/1998, de 25 de junio, del Voluntariado ¹², se entiende por voluntariado el conjunto de actividades de interés general (entendiéndose por tales las que comporten un compromiso a favor de la sociedad o de la persona, que se desenvuelvan en el ámbito social, comunitario, cívico, cultural, de cooperación al desarrollo, de protección al medio ambiente o cualesquier otro de naturaleza análoga), desarrolladas por personas físicas, siempre que se realicen en las siguientes condiciones:

- a) De manera desinteresada y con carácter solidario.
- b) Voluntaria y libremente, sin traer causa de una relación laboral, funcional o mercantil, o de una obligación personal o deber jurídico.
- c) A través de organizaciones sin ánimo de lucro y con arreglo a programas o proyectos concretos.
- d) Sin retribución económica.
- e) Sin sustituir, en ningún caso, servicios profesionales remunerados.

¹² Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA). 17/1998 LEGEA, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei Buruzkoa.

¹² Boletín Oficial del País Vasco (BOPV), Ley 17/1998, de 25 de junio, del Voluntariado

Definizio horretatik kanpo gelditzen dira erakundeetatik kanpo une jakin batean edo noizean behin familia-kontuengatik, adiskidetasunagatik, on egiteagatik edo auzoko bizikidetasun onak bultzatuta egindako borondatezko ekintzak.

Ikerketa honetan ez dugu legearen definizio zurrina erabili, eta boluntariotza bezala ulertu ditugu eraturako erakunde baten baitan egiten dena (boluntariotza formal) eta babesa ematen dion elkarte edo fundaziorik gabe egiten dena ere (boluntariotza informal).

Zehatzago, boluntariotza honela ulertu dugu: diru-ordainik gabeko lana, borondatez egindakoa, beste pertsona batzuei edo komunitateari laguntzeko egindakoa, eta denboran arduraldia eta jarraitasuna eskatzen duena, edo denbora tarte txiki batean erabateko arduraldia eskatzen duena.

Definizio honen barruan sartzen dira jarraian zerrendatzen ditugun jarduerak, besteak beste: aisialdiko begiralea izatea, kirol-taldeak entrenatzea, pertsona desgaituei, migrantei, etab., laguntzea, GKEekin elkarlanean aritzea (borondatez eta diru-ordainik jaso gabe egiten bada), bai eta atzerriko boluntariotza-programetan, auzoladegietan, etab. parte hartzea ere.

Idea hori abiapuntu bezala hartuta, Euskadiko gazteei boluntariotza-jardueretan duten parte-hartzeaz galdetu diegu.

3.1. BOLUNTARIOTZAREN ETA LAN BOLUNTARIOEN HEDAPENA

3.1.1. Boluntariotza

Euskal gazteen % 17,3k dio gaur egun boluntario-lanak (formalak edo informalak) egiten dituela.

Portzentaje horretan daude boluntario-lanak astero egiten dituztenak (% 5,7), hilean behin edo gehiagotan egiten dituztenak (% 4,9), urtean zehar maiztasun gutxiagorekin egiten dituztenak (% 4,1) eta udan bakarrik egiten dituztela diotenak (% 2,3).

Quedan excluidas de esta definición las actuaciones voluntarias espontáneas, esporádicas o prestadas al margen de organizaciones, ejecutadas por razones familiares, de amistad, benevolencia o buena vecindad.

En la presente investigación se ha partido de una concepción algo más laxa que la establecida en la ley y se ha considerado voluntariado tanto aquel que se realiza dentro del marco de una entidad constituida (voluntariado formal) como el que se realiza sin asociación o fundación que lo ampare (voluntariado informal).

Más concretamente, se ha entendido el voluntariado como un trabajo no remunerado realizado de forma voluntaria para ayudar a otras personas o a la comunidad, y que supone una dedicación con cierta continuidad a lo largo del tiempo o bien una dedicación exclusiva o casi exclusiva en un período corto de tiempo.

En esta definición se contemplan actividades tales como ser monitor o monitora de tiempo libre, entrenar a grupos deportivos, acompañar a personas discapacitadas, inmigrantes, etc., colaborar con distintas ONG, siempre que sea de forma voluntaria y sin cobrar por ello, así como participar en programas de voluntariado en el extranjero, campos de trabajo, etc.

Partiendo de esta idea se ha preguntado a la juventud de Euskadi por su participación en actividades de voluntariado.

3.1. EXTENSIÓN DEL VOLUNTARIADO Y LOS TRABAJOS VOLUNTARIOS

3.1.1. El voluntariado

Un 17,3 % de la juventud vasca afirma realizar actualmente actividades de voluntariado (formal o informal).

Este porcentaje se distribuye entre quienes afirman realizar voluntariado todas las semanas (5,7 % de las personas jóvenes), quienes realizan voluntariado una o varias veces al mes (4,9 %), quienes lo hacen a lo largo del año pero con menor frecuencia (4,1 %) y quienes lo hacen únicamente en verano (2,3 %).


Beste % 23,6k dio iraganean boluntariotzan parte hartu zuela, baina orain ezetz.

Gaur egun eta iraganean boluntario-lanetan ibili direla diotenen portzentajeak batuta, ikusiko dugu hamar gaztetik lauk (% 40,9) dutela nolabaiteko esperientzia boluntariotzan.

Edonola ere, gehiago dira boluntario-lanik inoiz egin ez duten gazteak (% 58,6).

41. GRAFIKOA.

Nola banatzen dira Euskadiko gazteak boluntariotzan izandako esperientziaren arabera? (%)



Otro 23,6 % afirma haber realizado actividades de voluntariado anteriormente, si bien ya no.

Si tomamos en consideración a quienes dicen hacer voluntariado actualmente y en el pasado, vemos que cuatro de cada diez jóvenes de Euskadi (40,9 %) tiene alguna experiencia en voluntariado.

Son más, en cualquier caso, las y los jóvenes que nunca han realizado voluntariado (58,6 %).

GRÁFICO 41.

¿Cómo se distribuye la juventud vasca de acuerdo a su experiencia en voluntariado? (%)

Datuak aztertuta, pentsa genezake boluntario-lanetan ibiltzen diren gazte gehienak erakunde baten babespean egiten dutela (boluntariotza formala deitu duguna da hau), boluntariotzan dabiltzanen % 80 elkarte bateko kide baitira (are gehiago, talde honetako bi heren elkarte bat baino gehiagoko kide dira).

Nesken artean zabalduago dago boluntariotza mutilen artean baino, maiztasun guztiak kontuan hartuta (% 20,1 eta % 14,5, hurrenez hurren). Erdiko adin-taldeko gazteak (20 eta 24 urte artekoak, alegia) dira boluntariotzan gehien aritzen direnak (% 20,0). Araban (% 20,5) eta Gipuzkoan (% 19,1) zertxobait zabalduago dago boluntariotza Bizkaian baino (% 15,2). Era berean, boluntarioek presentzia handiagoa dute goi-mailako ikasketak dituztenen artean (% 19,3), asko jota derrigorrezko bigarren mailakoen ondoko ikasketak dituztenen artean baino (% 12,7).

Analizando los datos cabe suponer que la mayoría de las personas jóvenes que hacen voluntariado lo hacen al amparo o bajo la tutela de una asociación (lo que hemos denominado voluntariado formal), dado que el 80 % de quienes hacen voluntariado son miembros de alguna asociación (es más, dos tercios de este colectivo pertenecen a varias asociaciones).

Entre las chicas la práctica del voluntariado, sea con la frecuencia que sea, está más extendida que entre los chicos (20,1 % y 14,5 %, respectivamente). El grupo de edad intermedio (20-24 años) es el que presenta mayor volumen de jóvenes haciendo voluntariado actualmente (20,0 %). En Álava y Gipuzkoa los porcentajes correspondientes a quienes hacen voluntariado (20,5 % y 19,1 %, respectivamente) son algo más elevados que en Bizkaia (15,2 %). Y también hay mayor presencia de voluntarios y voluntarias entre quienes están cursando o han finalizado estudios superiores (19,3 %) que entre quienes tienen, a lo sumo, estudios secundarios postobligatorios (12,7 %).


Gizarte-maila subjektiboak ere badu eragina boluntariotza-lanetan ibiltzean; horrela, beren burua maila altuko edo ertain-altukoa dela esan eta boluntario-lanetan dabiltzanen kopuruak (% 24,8) bikoiztu egiten du maila baxu edo ertain-baxuko boluntarioen kopurua (% 14,3).

Politikarekiko interesari erreparatuz gero ere ikusten ditugu desberdintasun batzuk: politikan interesa duten gazteen % 19,8k egiten dituzte boluntario-lanak, politikan interesik ez dutenen % 15,1en aurrean. Aldea antzekoa da pertsonenganako konfiantzari helduta; besteengan oro har konfiantza izaten dutenek % 19,4ko boluntariotza-portzentajeak dituzte eta besteekin zuhurtiaz jokatu behar dela uste dutenek % 15,5ekoak.

Alabaina, boluntario-lanak egin edo ez egiteko orduan eragin handiena duten aldagaiak gurasoen esperientzia eta elkarreketako kide izatea dira, dudarik gabe. Boluntario-lanak egiten dituzten edo zituzten gurasoen seme-alaben % 25,7k egiten ditu boluntario-lanak, boluntariotzan ibili ez diren gurasoen seme-alaben %11,8ren aldean. Era berean, asoziatutako gazteen artean boluntariotzan ibiltzen direnen portzentajea % 24,1koa bada ere, asoziatu gabeko gazteen artean % 8,1koa baino ez da.

42. GRAFIKOA.

Boluntariotza-jarduerak egitea, elkarreketako kide izatea eta gurasoen boluntariotzaren arabera (%)



La clase social subjetiva también guarda cierta relación con la realización de actividades de voluntariado; así quienes se definen de clase alta o media-alta y hacen voluntariado (24,8 %) duplican a las y los de clase baja o media-baja que hacen voluntariado (14,3 %).

Atendiendo al interés por la política también se aprecian algunas diferencias: el 19,8 % de la juventud interesada en política realiza actividades de voluntariado frente al 15,1 % de quienes no tienen interés en la política. Las diferencias son similares si analizamos la influencia de la confianza en la gente; quienes confían en la mayoría de la gente presentan unos porcentajes de voluntariado del 19,4 %, mientras que entre quienes piensan que nunca se es suficientemente prudente el porcentaje es del 15,5 %.

Pero, sin duda, las variables que más influyen en realizar o no realizar actividades de voluntariado son la experiencia familiar de los progenitores y la pertenencia a asociaciones. Entre las personas jóvenes cuyos progenitores hacen o hacían voluntariado el porcentaje de quienes realizan este tipo de actividades actualmente asciende al 25,7 %, frente al 11,8 % entre aquellas personas cuyos progenitores nunca han hecho voluntariado. Igualmente, en la juventud asociada el porcentaje de quienes hacen voluntariado es del 24,1 % y en la juventud no asociada este porcentaje se reduce al 8,1 %.

GRÁFICO 42.


Realización de actividades de voluntariado, según pertenencia a asociaciones y voluntariado de los progenitores (%)

Bestalde, lehen aipatu dugun bezala (ikus 41. grafikoa), euskal gazteen laurdenak ia (% 23,6) esaten du iraganean boluntario-lanetan ibilitakoa dela.

Boluntariotza uzteko arrazoirik ohikoenak denbora-falta eta egungo bizi-egoerarekin uztartzeko ezintasuna dira. Hori diote boluntario-lanak utzi dituzten hiru gaztetik bik (% 65,0). Bigarren arrazoi ohikoa da une jakin bateko ekintza izan zela esatea (adibidez, nazioarteko lankidetzako proiektu batean edo auzolandegi batean parte hartzea), eta ez dutela berriz egiteko aukerarik izan (% 25,6). Beste bi arrazoi dira boluntariotza antolatzen zuen elkartearekin ados ez egotea edo gogorik ez izatea, baina oso bazterrekoak dira biak (% 2,1 bakoitzak).

43. GRAFIKOA.

Boluntariotza uzteko arrazoiak (%)



Por otro lado, como hemos señalado (ver gráfico 41), casi una cuarta parte de la juventud vasca (23,6 %) afirma haber hecho voluntariado en alguna ocasión anterior, pero ya no.

La principal razón para dejar de hacer voluntariado es la falta de tiempo o la imposibilidad de compaginarlo con la situación vital actual, aducida por dos de cada tres jóvenes que antes hacían voluntariado pero ya no (65,0 %). La segunda razón más señalada es que fue algo puntual, como la participación en proyectos de cooperación internacional, en campos de trabajo, etc., y no ha habido opción de repetirlo (25,6 %). No seguir por desacuerdo con la organización desde la que se hace o porque ya no apetece son motivos muy residuales (2,1 % en ambos casos).

GRÁFICO 43.

Motivos para abandonar el voluntariado (%)

Oinarria: Boluntariotza egiteari utzi dioten gazteak

Base: Juventud que antes hacía voluntariado pero ya no

Denbora-falta da arrazoirik errepikatuena talde guztietan. Adinak aurrera egin ahala ugaritu egiten dira argumentu horren (denbora-faltaren) aipamenak, eta indarra galtzen du une jakin bateko ekintza izan zelako edo gogorik ez dutelako arrazoiak.

Azkenik, inoiz boluntariotzan jardun ez diren gazteei (% 58,6) erreparatuta, ikusten dugu hamarretik zazpik (% 69,4) ezagutzen dutela haien inguruan, lagun artean, auzoan, lan- edo ikasketa-kideen artean... haiek ere egin litzaketen boluntario-lanak egiten dituen norbait. Gertutasun-harreman horiek boluntariotzan sartzeko aukera eman liezaiekete nahi izatekotan.

En todos los colectivos la razón más señalada es la falta de tiempo. A medida que se incrementa la edad también lo hacen las menciones de este argumento (falta de tiempo), a la vez que pierde peso la justificación de que fue algo puntual o que no apetece seguir haciendo voluntariado.

Atendiendo, por último, a las y los jóvenes que dicen no haber hecho nunca voluntariado (58,6 %), vemos que siete de cada diez (69,4 %) conocen en su entorno cercano de amistades, vecindarios, compañeros y compañeras de trabajo o estudios... gente que hace algún tipo de voluntariado que también ellas o ellos podrían hacer. Esta relación cercana puede servir de puente y facilitar el acercamiento al voluntariado en caso de desearlo.

3.1.2. Boluntario-lanak momentu jakinetan

Boluntario-lanetan aritu ala ez, boluntariotza denboran jarraitasuna duen jarduera bezala ulertuta, gazteei galdetu diegu momentu jakinetan lan boluntarioak egin dituzten, alegia, jarduera jakin batzuetan lagundu duten (edozein motako jarduerak, herrikoiak, ongintzakoak, laguntzekoak, politikoak) horregatik diru-ordainik jaso gabe.


Euskadiko gazteen % 12,1ek dio gisa honetako lan edo laguntza boluntarioak egin ohi dituela.

Beste % 47,5ek dio noizbait egiten dituela edo egin izan dituela. Hortaz, esan dezakegu Euskadiko gazteen % 59,6k lagundu duela jarduera boluntarioetan gutxienez behin.

Gainerako % 40,3k dio ez duela inoiz egin horrelako jarduerarik.

44. GRAFIKOA.

Momentu jakinetan lan boluntarioak egitea (%)



Ikuspuntua itxi eta momentu jakinetako elkarlan boluntarioak sarritan egiten dituztenei erreparatzen badiegu, ikusten dugu asoziatutako gazteek asoziatu gabekoek baino gehiagotan hartzen dutela parte horrelako ekintzetan (% 17,0 eta % 5,5, hurrenez hurren).

Politikan interesa duten gazteek ere politikan interesik ez dutenek baino gehiagotan hartzen dute parte momentu jakinetako elkarlan boluntarioetan (% 16,7 eta % 7,6, hurrenez hurren).

3.1.2. Los trabajos voluntarios puntuales

Independientemente de hacer voluntariado o no, entendiendo el voluntariado como una actividad con cierta continuidad en el tiempo, se ha preguntado a la juventud por la realización de trabajos voluntarios puntuales, esto es colaboraciones puntuales en eventos concretos (eventos de cualquier índole, populares, benéficos, asistenciales, políticos...) sin cobrar por ello.

Un 12,1 % de la juventud vasca afirma realizar este tipo de trabajos o colaboraciones voluntarias puntuales de forma habitual.

Otro 47,5 % señala realizarlas o haberlas realizado alguna vez. Por lo tanto, podemos afirmar que seis de cada diez personas jóvenes de Euskadi (59,6 %) ha realizado colaboraciones voluntarias en al menos una ocasión.

El 40,3 % restante dice no haber hecho nunca ninguna actividad de este tipo.

GRÁFICO 44.

Realización de trabajos voluntarios puntuales (%)

Si atendemos, de forma restrictiva, a quienes dicen realizar colaboraciones voluntarias puntuales de forma habitual, observamos que la juventud asociada afirma realizar este tipo de acciones en mayor medida que la juventud no asociada (17,0 % y 5,5 %, respectivamente).


Las personas interesadas en la política también hacen colaboraciones puntuales con mayor frecuencia que aquellas no interesadas en la política (el 16,7 % y el 7,6 %, respectivamente, dicen colaborar habitualmente en estos trabajos voluntarios puntuales).

Boluntariotzan era jarraituan dihardutenek ere maizago egiten dituzte momentu jakinetako elkarlan boluntarioak (% 33,4) lehen boluntario-lanak egin baina orain egiten ez dituztenek baino (% 10,2) eta azken hauek ere inoiz boluntariotzan ibili ez direnek (% 6,5) baino maizago egiten dituzte lan horiek.

Hau da, badago lotura (edozein motako) elkarre bateko kide izatearen eta momentu jakinetako elkarlan boluntarioak egitearen artean, eta baita boluntariotzan era jarraituan ibiltzearen eta elkarlan boluntario horiek egitearen artean ere.

45. GRAFIKOA.

Momentu jakinetan lan boluntarioak egitea, elkarre-etako kide-tzaren eta boluntariotza egitearen arabera (%)



Quienes hacen voluntariado de forma más o menos continua también hacen trabajos voluntarios puntuales de forma habitual en mayor medida (33,4 %) que quienes hacían voluntariado anteriormente pero ya no (10,2 %); y estas últimas personas más que quienes nunca han hecho voluntariado (6,5 %).

Esto es, hay relación entre pertenecer a una asociación (de cualquier tipo) y realizar trabajos voluntarios puntuales, así como entre hacer voluntariado de forma más o menos continuada y hacer colaboraciones puntuales.

GRÁFICO 45.

Realización de trabajos voluntarios puntuales, según pertenencia a asociaciones y realización de voluntariado (%)

Gurasoak boluntario-lanen batean dabiltzanean gazteek momentu jakinetako boluntario-lanak egiteko joera handiagoa dute (% 20,7k egin ohi ditu, boluntario-lanik egiten ez duten gurasoen seme-alaben % 7,0ren aldean).

Pertsona eta erakundeenganako konfiantzak eta parte-hartzeari buruzko iritzi desberdinek oso lotura txikia dute momentu jakinetako boluntario-lanak egitearekin.

Cuando los progenitores hacen algún tipo de voluntariado las personas jóvenes también tienden a colaborar en mayor medida en trabajos voluntarios puntuales (el 20,7 % los realiza de forma habitual, frente al 7,0 % entre las y los jóvenes cuyos progenitores no hacen voluntariado).

La confianza en las personas y en las instituciones, así como las distintas opiniones sobre la participación, incide muy poco en el nivel de colaboración en actividades voluntarias puntuales.


3.1.3. Sailkapena boluntariotzako eta lan boluntarioetako esperientziaren arabera

Boluntariotza-jardueretan edo une jakinetako boluntario-lanetan izandako esperientziaren arabera, lau taldetan sailka dezakegu euskal gazteria:

- Boluntariotzan era egonkor eta jarraituan dabiltzanak edo ibili direnak eta gainera une jakinetako boluntario-lanak egiten dituztenak, bai askotan edo noizean behin; gazteen % 30,6 dira.
- Boluntariotzan dabiltzanak edo ibili direnak, baina une jakinetako boluntario-lanetan inoiz ibili ez direnak. Talderik txikiena da eta gazteen % 10,2 biltzen du.
- Une jakinetan boluntario-lanak egiten dituztenak (askotan nola noizean behin), baina boluntariotza modu jarraituan inoiz egin ez dutenak; gazteen % 29,0 dira.
- Boluntariotza-lanik edo une jakinetako boluntario-lanik egin ez dutenak: gazteen % 30,2.

46. GRAFIKOA.

Gazteen sailkapena boluntariotzako eta lan boluntarioetako esperientziaren arabera (%)



Sailkapen honi esker hobeto ulertuko dugu zein alorretan egiten diren jarduera hauek eta zer motibaziok bultzatzen duten jendea horietara.

3.1.3. Clasificación en función de la experiencia en voluntariado y trabajos voluntarios

Atendiendo a la experiencia personal en la realización de actividades de voluntariado y/o trabajos voluntarios puntuales, podemos clasificar a la juventud vasca en cuatro grupos:

- Quienes hacen o han hecho voluntariado de forma estable o continuada y también trabajos voluntarios puntuales, bien sea de manera habitual u ocasional; se trata del 30,6 % de la juventud.
- Quienes hacen o han hecho voluntariado pero nunca han realizado trabajos voluntarios puntuales. Es el grupo más minoritario, que acoge al 10,2 % de las y los jóvenes.
- Quienes realizan trabajos voluntarios puntuales (de forma habitual u ocasional), pero nunca han hecho voluntariado de forma continuada; son el 29,0 % de las y los jóvenes.
- Y quienes nunca han realizado actividades de voluntariado ni trabajos voluntarios puntuales: 30,2 % de la juventud.

GRÁFICO 46.

Clasificación de la juventud en función de la experiencia en voluntariado y en trabajos voluntarios (%)

Esta clasificación nos ayudará a entender mejor cuáles son los ámbitos en que se desarrollan este tipo de actividades y cuáles son las motivaciones de las personas jóvenes para realizarlas.

3.2. BOLUNTARIOTZAREN ETA LAN BOLUNTARIOEN ALORRAK

Boluntariotzan ari diren edo aritu diren gazteei eta une jakinetan boluntario-lanak egiten dituztenei, bai askotan nola noizean behin, (Euskadiko hamar gaztetik zazpi) galdetu diegu lan horiek zer esparrutan gauzatzen dituzten (inplikazio edo denbora gehien eskaini dioten alorra).

Erantzunei erreparatuta, esan behar da jarduera edo lan boluntario gehienak hezkuntzako aisialdiarekin (% 27,4) eta kirolarekin (% 24,2) daudela lotuta.

Beste % 14,7k giza-eskubideekin edo lankidetzarekin du lotura, % 11,6k kulturarekin edo ondare kulturalarekin eta gutxiago dira boluntariotza osasunaren arloan (% 7,0), laguntzaren arloan (% 7,0 ere) edo ingurumenaren arloan (% 2,0) egiten duten gazteak.

Kirola da gizon gazteek gehien aipatzen duten esparrua (hori dio horrelako lanak egiten dituzten % 33,5ek). Emakume gazteak, ordea, hezkuntzako aisialdiaren esparruan jarduten dira boluntario-lanetan gehien (% 32,0). Gizon baino emakume gehiago dago era berean giza-eskubideen eta lankidetzaren esparruan egindako boluntario-lanetan (boluntario-lanak egiten dituzten emakumeen % 17,8 eta gizonen % 11,7, zehazki).

3.2. ÁMBITOS DE ACTUACIÓN DEL VOLUNTARIADO Y LOS TRABAJOS VOLUNTARIOS

A las personas jóvenes que hacen o han hecho voluntariado y a aquellas que realizan trabajos voluntarios puntuales bien de forma habitual u ocasional (siete de cada diez jóvenes de Euskadi) se les ha preguntado por el ámbito de esos trabajos (aquel al que dedican o han dedicado mayor implicación o tiempo).


A la vista de las respuestas, cabe señalar que la mayor parte de las actividades de voluntariado o trabajos voluntarios tienen que ver con el tiempo libre educativo (27,4 %) y con el deporte (24,2 %).

Otro 14,7 % guarda relación con los derechos humanos o la cooperación, un 11,6 % con la cultura o el patrimonio cultural y son menos las y los jóvenes que afirman realizar voluntariado o trabajos voluntarios especialmente en el ámbito de la salud (7,0 %), en el ámbito asistencial (otro 7,0 %) o del medio ambiente (2,0 %).

El deporte es el ámbito más mencionado por los hombres jóvenes (el 33,5 % de quienes hacen voluntariado o colaboraciones voluntarias lo señala), mientras que el tiempo libre educativo es el ámbito en el que más participan voluntariamente las mujeres jóvenes (32,0 %). Las mujeres también están más presentes que los hombres en el voluntariado o trabajos voluntarios realizados en el ámbito de los derechos humanos y la cooperación (17,8 % de las mujeres voluntarias y 11,7 % de los hombres voluntarios, concretamente).

47. GRAFIKOA.

Boluntariotza edo momentu jakinetako lan boluntarioak egiteko alor nagusia, sexuaren arabera (%)



Oinarria: Boluntariotza edo une jakinetako lan boluntarioak egiten edo egin dituzten gazteak
Base: Juventud que hace o ha hecho voluntariado o trabajos voluntarios puntuales

Boluntario-lanak egiten dituzten edo egin dituzten pertsona gazteen artean, hezkuntzako aisialdia da esparrurik aipatuena Araban eta Bizkaian. Gipuzkoan, aldiz, kirola da esparrurik ohikoena. Gainera, Araban beste bi lurraldeetan baino gehiago aipatzen dira giza-eskubideen edo laguntzaren esparruko jarduerak boluntarioak, eta Bizkaian aipatzen da gehien osasunaren esparrua.

Boluntariotzako edo une jakinetako lan boluntarioetako esperientziaren arabera, desberdintasun nabariak aurkitzen ditugu:

- Bai boluntariotzan, bai une jakin bateko lan boluntarioetan esperientzia dutenen artean, hezkuntzako aisialdia da esparrurik aipatuena (% 28,1), baina beste taldeekin alderatuta giza eskubideen eta lankidetzaren esparruak hartzen du indar handia (% 18,9k aipatzen dute).

Entre las personas jóvenes que realizan o han realizado voluntariado o trabajos voluntarios y residen en Álava o Bizkaia el ámbito de actuación más mencionado es el del tiempo libre educativo; en Gipuzkoa, en cambio, es el ámbito deportivo. Además en Álava son más mencionadas que en el resto de territorios las áreas de actuación ligadas a los derechos humanos o al ámbito asistencial, y Bizkaia, por su parte, destaca por ser el territorio donde más se menciona el ámbito de la salud.

En función de la experiencia en voluntariado y/o en trabajos voluntarios puntuales, podemos señalar diferencias destacadas:

- Entre quienes tienen experiencia tanto en voluntariado como en trabajos voluntarios puntuales el tiempo libre educativo es el ámbito de actuación más señalado (28,1 %), pero en relación al resto de grupos adquiere mayor importancia el terreno de los derechos humanos y la cooperación, mencionado por un 18,9 %.

- Une jakin bateko lanetan ez baina boluntariotzan ibiltzen diren edo ibili diren gazteen artean, hezkuntzako aisialdiaren esparrua % 41,6raino heltzen da. Laguntzaren eta osasunaren esparruak ere batez bestekoa baino ohikoagoak dira talde horretan.

- Boluntariotza ez baina une jakin bateko lan boluntarioak askotan edo noizean behin egiten dituztenen artean, kirol-esparrua da nagusi (% 32,3). Kultura eta ondare kulturala ere batez bestekoaren gainetik ageri zaizkigu talde honetan (% 15,7).

- Entre quienes realizan o han realizado voluntariado, pero no trabajos voluntarios puntuales, el peso del tiempo libre educativo asciende hasta el 41,6 %. Los ámbitos asistencial y de la salud también cobran mayor relevancia que la media.

- Entre quienes no han hecho voluntariado nunca pero sí realizan trabajos voluntarios puntuales de forma habitual u ocasional el principal ámbito de actuación es el deportivo (32,3 %). La cultura y el patrimonio cultural también son objeto de mayor atención que la media (15,7 %).

5. TAULA.

Boluntariotza edo lan boluntarioak egiteko alor nagusia, boluntariotzan eta/edo momentu jakinetako lan boluntarioetan izandako esperientziaren arabera (%)

TABLA 5.

Principal ámbito de realización de voluntariado y trabajos voluntarios, según la experiencia en voluntariado y/o trabajos voluntarios puntuales (%)

ALOR NAGUSIA PRINCIPAL ÁMBITO	Boluntariotzako eta/edo lan boluntarioetako esperientzia Experiencia en voluntariado y/o trabajos voluntarios			
	Guztira Total	Boluntariotza + lan boluntarioak Voluntariado + Trabajos voluntarios	Boluntariotza bai, lan boluntarioak ez Voluntariado sí, trabajos voluntarios no	Lan boluntarioak bai, boluntariotza ez Trabajos voluntarios sí, voluntariado no
Hezkuntza-aisialdia Tiempo libre educativo	27,4	28,1	41,6	21,7
Kirola Deporte	24,2	21,3	9,7	32,3
Giza-eskubideak, lankidetzak Derechos humanos, cooperación	14,7	18,9	7,0	13,1
Kultura edo kultura-ondarea Cultura o patrimonio cultural	11,6	9,4	6,3	15,7
Osasuna Salud	7,0	8,0	11,2	4,4
Asistentzia-eremua Ámbito asistencial	7,0	8,9	11,7	3,3
Ingurumena Medio ambiente	2,0	2,1	3,4	1,3
Besteren bat / Otro	0,4	0,2	1,5	0,3
Ed-Ee / Ns-Nc	5,8	3,1	7,6	8,0
GUZTIRA / TOTAL	100	100	100	100

3.3. BOLUNTARIOTZA ETA/EDO MOMENTU JAKINETAKO LAN BOLUNTARIOAK EGITEKO MOTIBAZIOAK

Era berean, inoiz boluntariotzan ibili direnei edo une jakin batean lan boluntarioak egin dituztenei galdetu diegu horretarako zer motibazio eduki dituzten.

Bi erantzun nagusiak ia maiztasun berarekin errepikatzen dira: beste pertsona batzuen edo inguruaren egoera hobetzeko egiten dela esatea, hau da, motibazio etiko edo ideologiko bat (% 40,1), eta norberaren gozamenerako, lagunak egiteko, esperientzia berriak bizitzeko... egiten dela esatea, hots, motibazio ludiko edo soziabilitatekotzat har genezakeena (% 37,9).


Gutxiago dira motibazio utilitarista argudiatzen dutenak, hau da, ordainak bilatzen dituztenak, hala nola, ezagutza praktikoak eskuratzea, curriculuma hobetzea, kontaktuak egitea... (% 14,8).

Gainera, % 3,2k beste motibazio batzuk eman ditu eta gainerako % 4,1ek ez du erantzunik eman.

Esan behar da gazte bakoitzak bi erantzun eman zitzakeela eta aurreko portzentajeak jasotako emaitza guztien gainekoak direla.

48. GRAFIKOA.

Boluntariotza eta/edo momentu jakinetako lan boluntarioak egiteko arrazoiak (%)



3.3. MOTIVACIONES PARA HACER VOLUNTARIADO Y/O TRABAJOS VOLUNTARIOS

Igualmente, se ha preguntado a las personas jóvenes que en alguna ocasión han hecho voluntariado o trabajos voluntarios por los motivos para ello.

Las respuestas se reparten prácticamente por igual entre afirmar que se hace para mejorar la situación de otras personas o del entorno, esto es, por una motivación ética o ideológica (40,1 %), y señalar que se hace para el disfrute personal, hacer amigos, vivir nuevas experiencias..., lo que se podría denominar como una motivación lúdica o de socialidad (37,9 %).

Son bastantes menos las respuestas que indican una motivación utilitarista o de búsqueda de compensaciones, esto es, adquirir conocimientos prácticos, mejorar el currículum, hacer contactos... (14,8 %).

Además otro 3,2 % de las respuestas indican otras motivaciones y en el 4,1 % restante de los casos no se ha dado ninguna respuesta.

Hay que señalar que cada persona joven podía dar dos respuestas por lo que los porcentajes anteriores son sobre el total de respuestas dadas.

GRÁFICO 48.

Motivos para hacer voluntariado y/o trabajos voluntarios puntuales (%)

- **Motibazio etiko edo ideologikoa**
Motivación ética o ideológica
- **Motibazio ludiko edo soziabilitatekoa**
Motivación lúdica o de relación
- **Motibazio utilitarista**
Motivación utilitarista
- **Beste motibazioak**
Otra motivación
- **Ed-Ee / Ns-Nc**

Oinarria: Boluntariotza edo une jakinetako lan boluntarioak egiten edo egin dituzten gazteak

Base: Juventud que hace o ha hecho voluntariado o trabajos voluntarios puntuales

Boluntariotza soilik, une jakinetako lan boluntarioak soilik edo bitarikoak egin izatearen arteko sailkapenak ez du apenas desberdintasunik ematen. Hiru kasuetan dira nagusi motibazio etiko eta ludikoak, eta motibazio utilitarista gutxiagotan aipatzen da.

Beraz, boluntariotza edo une jakin bateko lan boluntarioak egin dituztenak talde bezala hartuta, hainbat kolektibotako motibazioak aipatuko ditugu.

Emakume gazteek gizonek baino zertxobait gehiago erabiltzen dute argumentu etiko-ideologikoa (% 42,2 eta % 38,1, hurrenez hurren).

Boluntariotza edo une jakin bateko lan boluntarioak egiteko arrazoi nagusia etiko-ideologikoa da Araban eta Bizkaian. Gipuzkoan, berriz, pisu handiagoa du motibazio ludiko edo erlazionalak. Ordain utilitaristen motibazioa ez dago hain zabaldua, baina hala ere maizago aipatzen da Bizkaian eta Gipuzkoan Araban baino.

Gizarte-mailan gora egin ahala, gora egiten dute motibazio ludikoaren eta norberaren gozamenaren aipamenek eta, aitzitik, behera egiten du motibazio utilitaristarekin lotutako erantzunen bolumenak (ezagutza praktikoak eskuratzea, curriculum hobetzea, kontaktuak egitea...). Azken motibazio hori batez ere aipatzen dute beren burua maila baxu edo ertain-baxukotzat dutenek (% 19,2), baita langabezian daudenek ere (% 18,6).

Kasu honetan ere badu garrantzia familiaren erreferentziak. Gurasoak boluntariotzan ibili badira, presenteago dago motibazio etikoa edo ideologikoa.

La distinción entre quienes hacen o han hecho voluntariado, por un lado, quienes hacen o han hecho trabajos voluntarios puntuales, por otro, y quienes tienen experiencia en ambos tipos de actividades apenas muestra diferencias. En los tres casos destacan las motivaciones éticas y lúdicas, mientras que el argumento utilitarista es el menos esgrimido.

Tomando, por tanto, de forma conjunta a quienes realizan o han realizado voluntariado o trabajos voluntarios puntuales vamos a señalar algunas diferencias en las motivaciones de distintos colectivos.

Las mujeres jóvenes mencionan algo más que los hombres jóvenes el argumento ético-ideológico (42,2 % y 38,1 %, respectivamente).


Hacer voluntariado o trabajos voluntarios por razones éticas o ideológicas es la razón más señalada en Álava y Bizkaia, mientras que en Gipuzkoa tiene más peso la motivación lúdica o de relación. La búsqueda de compensaciones utilitaristas, aunque es minoritaria, es algo más mencionada en Bizkaia y Gipuzkoa que en Álava.

A medida que la clase social aumenta también lo hacen las menciones de la motivación lúdica de disfrute personal y, por el contrario, descende el volumen de respuestas relativas a la motivación utilitarista de búsqueda de compensaciones personales (adquirir conocimientos prácticos, mejorar el currículum, hacer contactos...). Esta última motivación es especialmente señalada entre quienes se consideran de clase baja o media-baja (19,2 %), así como entre quienes están en paro (18,6 %).

En este caso también tiene importancia el referente familiar. Cuando los progenitores hacen o han hecho voluntariado en alguna ocasión la motivación ética o ideológica está más presente.

49. GRAFIKOA.

Boluntariotza eta/edo momentu jakinetako lan boluntarioak egiteko arrazoiak, gizarte-maila subjektiboaren eta gurasoen boluntariotzaren arabera (%)



Oinarria: Boluntariotza edo une jakinetako lan boluntarioak egiten edo egin dituzten gazteak
 Base: Juventud que hace o ha hecho voluntariado o trabajos voluntarios puntuales

3.4. BOLUNTARIOTZAKO ETA LAN BOLUNTARIOETAKO PARTE-HARTZEAREN INDIZEA

Atal honi amaiera emateko, indize bat egin dugu, edozein motatako jarduera boluntarioetan gazteek duten parte-hartzea laburbiltzeko.

Horrela, gaur egun edo iraganean boluntariotza edo lan boluntarioak egin diren arabera eta horiek egiteko maiztasunaren arabera, boluntariotzako eta lan boluntarioetako parte-hartzearen indize bat sortu dugu, hiru kategoriarekin:

- Intensitate handia. Kategoria honetan daude boluntariotza gutxienez hilean behin egiten

3.4. ÍNDICE DE PARTICIPACIÓN EN VOLUNTARIADO Y TRABAJOS VOLUNTARIOS

Para finalizar el capítulo se ha elaborado un índice que pretende resumir la participación de la juventud en actividades voluntarias de cualquier tipo.

Así, a partir de la realización actual o pasada de voluntariado o de trabajos voluntarios puntuales y de la frecuencia con que se ejecutan, hemos establecido un índice de participación en voluntariado y trabajos voluntarios que consta de tres categorías:

- Intensidad alta. En esta categoría seleccionamos a las personas jóvenes que realizan voluntariado con una

duen gazteak (astero edo hilabeteen behin edo gehiagotan). Parte-hartze periodiko bat da, beraz, eta konpromisoak hartzeko behar handia suposatzen du. Talde horretan daude Euskadiko gazteen % 6,5.

- Intentsitate ertaina. Bigarren kategoria honetan biltzen ditugu boluntariotza denboran tartekatuago egiten dutenak (hilabeteen behin baino gutxiagotan urtean zehar, edo uda garaian bakarrik) eta une jakin bateko lan boluntarioak egin ohi dituztenak. Konpromiso maila txikiagoa da aurreko kategorian ez bezala lanak ez direlako maiztasun handi batekin egiten. Talde honetan daude gazteen % 17,1.

- Intentsitate txikia. Azken kategoria honetan daude gaur egun boluntariotza-lanik egiten ez dutenak (nahiz eta iraganean batzuek egin izan dituzten) eta une jakin bateko lan boluntarioak askotan egiten ez dituztenak, nahiz eta noizbait lanen bat egin ahal izan duten. Talde hau da jendetsuena eta beronen parte dira Euskadiko gazte gehienak: % 76,4.

Azken kategoria hau bi taldetan bana daiteke gazteek boluntariotzarekiko duten loturaren arabera:

- Noizbehinkako lotura, edo lotura partziala. Hemen leudeke iraganean boluntariotza egin duten gazteak eta une jakin bateko lan boluntarioak noizbait egin dituztenak. Elkarlan boluntarioetan nolabaiteko esperientzia duten gazteak biltzen ditu, beraz, nahiz eta elkarlan hori denboran jarraitua izan ez. Haien konpromiso-maila txikia da eta une jakin batzuei lotuta ageri da, baina etorkizunean berriz aktibatzeke aukera dago. Gazteriaren % 46,3k (hau da, ia erdiak) dauka noizbehinkako lotura edo lotura partziala jarduera boluntarioekin.
- Jarduera boluntarioekiko jarrera pasiboa, parte-hartetzat har ezin dezakeguna. Boluntario-lanik edo momentu jakin bateko lan boluntarioik inoiz egin ez dutenen kasua da. Ondorioz, haien konpromisoa nulua da. Euskadiko gazteen heren bat baino pixka bat gutxiago (% 30,2) dago kategoria honetan.

Familiaren erreferentziak badu garrantzia hemen ere; gurasoak asoziatuta daudenean edo boluntariotzan esperientzia dutenean handiagoa da parte-hartzea herri-giroko jarduerak, kirol-ekintzak edo jarduera kulturalak antolatzen (% 45,1ekoa lehen taldean eta % 49,5ekoa bigarrenen).

Pertsonen arteko konfiantzak eragin txiki bat badu jarduera hauetan parte hartzerakoan; oro har besteengan konfiantza dutela dioten % 38,1ek dio herri-giroko jarduerak antolatzen lagundu duela, besteekin beti zuhurtiaz jokatu behar dela dioten % 29,2ko parte-hartzearen aurrean.

Aldaketari buruzko iritzia eragina txikiagoa da, ordea. Gauzak aldatzen saiatzea merezi duela uste dutenek kontrako iritzia dutenek baino gehiago lagundu dute jarduera herrikoiak antolatzen (% 36,7 eta % 28,2, hurrenez hurren).

4.8. ODOLA EDO ORGANOAK EMATEA

Odola edo organoak emateko kanpainetan parte hartzea ez da horren ohikoa. Hala ere, gazteen % 3,7k dio horrelako kanpaina bat antolatzen lagundu zuela 2014an.

Gainera, % 17,5ek dio odola eman duela edo organo-emaile egin dela azken urtean. Datu horri aurretik organo-emaile zen % 4,5 gehitu behar diogu.

Hala eta guztiz ere, hau da proposatu diren jarduera guztietatik gazteen parte-hartze txikiena biltzen duena (ia hirutik lauk, % 72,8k, esaten du ez dutela inolaz ere parte hartu).

Aipatu ditugun hiru parte-hartze formak batuta (kanpainak antolatzea, odola ematea, eta organo-emaile egitea azken urtean edo lehendik organo-emaile izatea), hauek dira parte-hartze portzentajerik altuena duten taldeak: 20 urtetik gorakoak (% 29), goi-mailako ikasketak dituztenak (% 29,7), politikan interesa dutenak (% 30,5), besteengan konfiantza izan daitekeela uste dutenak (% 29,3), asoziatutako gazteak (% 29,4), boluntariotzan esperientzia duten pertsonak (% 33 egun boluntario direnen artean eta % 30 iraganean boluntario izandakoen artean), momentu jakinetan lan boluntarioak egiten dituztenak (% 34,5) eta elkarte bateko kide diren edo boluntariotzan esperientzia duten gurasoak dituzten gazteak (% 31,9 eta % 30,7, hurrenez hurren).

El referente familiar muestra su peso de nuevo; cuando los progenitores están asociados o tienen experiencia en voluntariado es mayor la participación organizando eventos populares, culturales o deportivos (45,1 % en el primer grupo y 49,5 % en el segundo).

La confianza interpersonal incide ligeramente en la participación en este tipo de eventos; el 38,1 % de quienes afirman que confían en la mayoría de la gente dice haber colaborado en la organización de eventos populares, frente al 29,2 % de quienes señalan que nunca se es suficientemente prudente al tratar con los demás.

La opinión sobre el cambio también influye (aunque no tanto) en la participación, quienes creen que merece la pena intentar cambiar las cosas han colaborado en mayor medida que quienes no opinan así en la organización de eventos populares (36,7 % y 28,2 %, respectivamente).

4.8. DONACIÓN DE SANGRE U ÓRGANOS

Participar en la organización de campañas de donación de sangre u órganos es algo más excepcional. Así y todo un 3,7 % de la juventud dice haber participado en la organización de alguna de estas campañas durante el año 2014.

Otro 17,5 % afirma haber donado sangre o haberse hecho donante de órganos durante el último año, a lo que hay que sumar el 4,5 % que afirma que ya era donante de órganos con anterioridad.

Sin embargo, esta es, de todos los tipos de acciones propuestas, en la que menos participan las personas jóvenes (casi tres de cada cuatro, 72,8 %, señalan no haber tomado parte de ninguna manera).


Sumando las tres formas de participación mencionadas (organización de campañas, donación sangre o hacerse donante de órganos en el último año o ser donante de órganos previamente), vemos que los colectivos que más han participado en este tipo de acciones se corresponden a las y los mayores de 20 años (29 %), las y los jóvenes con estudios superiores (29,7 %), la juventud interesada en la política (30,5 %), quienes creen que se puede confiar en la mayoría de la gente (29,3 %), la juventud asociada (29,4 %), personas con experiencia en voluntariado (33 % entre quienes hacen voluntariado actualmente y 30 % entre quienes hicieron anteriormente pero ya no), personas que realizan trabajos voluntarios puntuales de forma habitual (34,5 %) y jóvenes cuyos progenitores también están asociados (31,9 %) y/o tienen experiencia en voluntariado (30,7 %).

59. GRAFIKOA.

Odola edo organoak emateko parte-hartze maila, ikasketa-mailaren eta momentu jakinetako lan boluntarioak egitearen arabera (%)

GRÁFICO 59.

Grado de participación en donaciones de sangre u órganos, según nivel de estudios y realización de trabajos voluntarios puntuales (%)



4.9. EKINTZA SOZIALETAKO PARTE-HARTZEAREN RANKING-A

Landutako parte-hartze sozialaren forma guztiak eta horietan parte hartzeko era (ekintza sustatzea edo ekintza antolatzen laguntzea, edo ekintzan parte hartzea, besterik gabe) kontuan hartuta, ranking edo sailkapen bat egin dezakegu euskal gazteriaren parte-hartzea gehien biltzen duten ekintzak zeintzuk diren ebazteko.

4.9. RANKING DE PARTICIPACIÓN EN ACCIONES SOCIALES


Atendiendo a todas las formas de participación social comentadas y tomando en consideración tanto la promoción de la acción o la colaboración en la organización de la misma, como la participación sin mayor involucración, podemos establecer un ranking o clasificación para determinar cuáles son los tipos de acciones en los que más participa la juventud vasca.

60. GRAFIKOA.

Ekintza sozialetako parte-hartzearen sailkapena (%)

GRÁFICO 60.

Clasificación de la participación en distintos tipos de acciones sociales (%)



Gazteek gehien parte hartzen duten ekintza soziala kirol- edo kultura-alorrekoak jarduera herrikoiak eta dira. Izaera ludikoak, herrikoiak eta jai-giroak ekintzak erakargarriago egiten dituzte.

Aitzitik, odola edo organoak ematea da 2014an gazteen parte-hartze txikiena lortzen duen ekintza, aztertu ditugunetatik. Izan ere, nahi izateaz gain baldintza fisiko jakin batzuk bete behar dira odola edo organoak emateko.

Era berean, gazteen erdiak baino gutxiagok hartu du parte asanbladetan edo hauteskundeetan. Bi ekintza horiek konpromiso-maila bat eskatzen dute eta ohikoagoak dira elkarte bateko kide diren gazteen artean.

La participación en eventos populares de carácter cultural o deportivo es el tipo de acción social en el que más participa la juventud. El componente lúdico, popular, festivo... del acto lo hace más atrayente.

En el extremo opuesto, las donaciones de sangre u órganos, que requieren de ciertos requisitos físicos independientes de la propia voluntad, dado que hay que cumplir ciertas condiciones para poder donar sangre u órganos, es, de los tipos de acción propuestos, en el que menos han tomado parte las personas jóvenes durante el año 2014.

También son menos de la mitad las y los jóvenes que han participado en asambleas y/o elecciones. Ambos tipos de acción requieren cierto nivel de compromiso y se ha constatado que es más frecuente en la juventud que pertenece a algún tipo de asociación.

4.10. EKINTZA SOZIALETAKO INPLIKAZIOAREN INDIZEA


Ekintza sozial hauetako parte-hartzea eta inplikazio-maila oinarri hartuta, hiru kategoriako indize bat sortu dugu:

- Inplikazioa handia. Kategoría honetan daude 2014an aztertu ditugun zortzi ekintzetatik gutxienez hiru antolatzen parte hartu dutenak.
- Inplikazio ertaina. Kategoría honetan daude aztertutako ekintzetako bat edo bi antolatu edo sustatu dituztenak, edota ekintzarik antolatu gabe gutxienez seitan parte hartu dutenak.
- Inplikazio txikia. Azken kategoría honetan daude ekintzarik antolatu edo sustatu ez eta sei baino gutxiagotan parte hartu duten gazteak.

Emaitzak aztertuta, ikusten dugu gazteen % 17,1ek inplikazio sozial handia duela, % 45,0k ertaina eta % 37,9k txikia.

61. GRAFIKOA.

Ekintza sozialetako inplikazioaren indizea (%)



Ez dugu desberdintasunik ikusten indizean sexuaren arabera, nahiz eta mutilek presentzia aktiboagoa izan kirol- eta kultura-arloetako jardueren herrikoietan.

Adinak ez du desberdintasunik sortzen inplikazio handian, baina bai inplikazio ertainean. 20 urtetik gorako gazteen artean, behera egiten du inplikazio txikiko gazteen kopuruak eta gora inplikazio ertainekoena.

4.10. ÍNDICE DE IMPLICACIÓN EN ACCIONES SOCIALES

Tomando como base la participación en estos tipos de acciones sociales y el grado de implicación con el que se participa hemos creado un índice que consta de tres categorías:

- Implicación alta. En esta categoría se agrupan las personas jóvenes que en 2014 han participado en la organización de al menos tres de los ocho tipos de acciones sociales propuestos.
- Implicación media. En este grupo se incluyen las y los jóvenes que durante el pasado año han colaborado o promovido la organización de uno o dos tipos de acciones propuestas, o bien sin haber organizado ninguna acción, han tomado parte en al menos seis de ellas.
- Implicación baja. En esta última categoría encontramos a las y los jóvenes que no han colaborado ni promovido ninguna de las acciones propuestas y han participado en menos de seis.

Analizando los resultados vemos que el 17,1 % de la juventud tiene una implicación social alta, un 45,0 % una implicación media y el 37,9 % restante una implicación baja.

GRÁFICO 61.

Índice de implicación en acciones sociales (%)

No se aprecian diferencias en el grado de implicación general de hombres y mujeres jóvenes, aunque, de forma concreta, los chicos tengan una presencia más activa en los eventos culturales y deportivos.

La edad no marca diferencias en cuanto a la implicación alta, pero sí en relación a la implicación media. A partir de los 20 años descende el porcentaje de jóvenes con baja implicación en acciones sociales y se incrementa el número de quienes señalan tener una implicación media.

Goi-mailako ikasketak dituzten gazteen artean, zertxobait altuagoak dira inplikazio handia (% 19,1) eta ertaina (% 47,4).

Beren burua gizarte-maila altuan edo ertain-altuan kokatzen dutenek portzentaje altuagoak dituzte inplikazio altuan (% 27,0).

Politikan interes handia edo nahikoa interes dutenek politikan interesik ez dutenek baino inplikazio-maila altuagoa dute (inplikazio handia dute lehen taldeko % 26,8k eta bigarreneko % 8,0k).

Oinarrizko premisa bezala hartu dugu ekintza hauetan parte hartzeko elkarte bateko kide izatea beharrezkoa ez zela, baina ikusten dugu inplikazio handia eta ertaina zabalduagoak daudela asoziatutako gazteen artean (% 23,9k inplikazio handia du, eta % 49,0k ertaina). Ondorioz, esan dezakegu ekintza hauetako askoren sorburua elkarteetan edo haiek defendatzen dituzten interesetan dagoela. Are gehiago, aldi berean elkarte bat baino gehiagoko kide diren gazteen artean, inplikazio handia % 33,8koa da.

62. GRAFIKOA.

Ekintza sozialetako inplikazioaren indizea, politikarekiko interesaren eta elkarte bateko edo gehiagoko kide izatearen arabera (%)

La juventud con estudios superiores puntúa algo más alto tanto en implicación alta (19,1 %) como en implicación media (47,4 %).


Las y los jóvenes que se consideran de clase social alta o media-alta obtienen mayores porcentajes que el resto en la categoría de implicación alta (27,0 %).

Quienes muestran mucho o bastante interés en la política también presentan bastante mayor implicación que quienes no manifiestan interés en la política (en el primer grupo el 26,8 % tiene una implicación alta frente al 8,0 % en el segundo).

Aunque hemos partido de la premisa de que este tipo de acciones son independientes de pertenecer o no a una asociación, constatamos que la implicación alta y media está más presente en la juventud asociada (el 23,9 % tiene implicación alta y otro 49,0 % media), por lo que se aprecia que muchas de estas acciones parten de la propia actividad de la asociación o de los intereses que defiende. Es más, cuando se pertenece a varias asociaciones simultáneamente la implicación alta aumenta hasta el 33,8 %.

GRÁFICO 62.

Índice de implicación en acciones sociales, según interés en la política y pertenencia a una o varias asociaciones (%)



Denbora edo baliabide gehien eskaintzen dioten elkarte-motari erreparatuz, ikusten dugu kirolarekin edo gazte-lokalekin lotura ez duten elkarteetan gehien inplikatzaren diren gazteek dutela inplikazio handiko portzentajerik altuena (% 32,0).

Boluntariotzan ari diren gazteen artean, ekintza sozial zehatzetako inplikazio handia % 38,7raino heltzen da, eta % 20,9k baino ez dute inplikazio txikia.

Momentu jakinetako lan boluntarioak egin ohi dituztenen artean, inplikazio handia % 46,5ekoa da eta inplikazio ertaina % 42,7koa. Pentsatzekoa da gainerako % 10ek galdeketa kontuan hartu ez ziren beste parte-hartze sozialeko ekintzetan lagunduko dutela.

Plataforma eta mugimendu sozialetan konfiantza dutenek aztertutako ekintzetan parte hartzeko besteek baino joera handiagoa dute, eta, beraz, inplikazio handiko portzentaje altuagoak dituzte, mugimendu sozialengan konfiantzarik ez dutenek baino (% 19,0 eta % 7,6, hurrenez hurren).

Berdin gertatzen da gauzak aldatzeko ahaleginarekin. Gauzak aldatzeko ahaleginak merezi duela uste dutenek kontrakoa pentsatzen dutenek baino inplikazio handiko portzentaje altuagoak dituzte (% 19,9 eta % 11,3, hurrenez hurren).

Azkenik, aipatu behar dugu, ekintza sozial bakoitzean adierazi dugun bezala, familiaren erreferentziak duen garrantzia. Izan ere, gurasoek asoziatuta daudenean (% 27,3) edo boluntariotzan esperientzia dutenean (% 28,2) inplikazio altuaren portzentajea asoziatuta ez dauden eta boluntariotzan ez diharduten gurasoen seme-alaben portzentajearen bikoitza da.

Atendiendo al tipo de asociación al que se dedica más tiempo o recursos, vemos que las personas con mayor vinculación a asociaciones no ligadas al deporte ni a las lonjas son las que presentan los mayores porcentajes de implicación alta (32,0 %).

Entre las personas jóvenes que hacen voluntariado la implicación alta en este tipo de acciones sociales concretas se eleva al 38,7 % y tan solo un 20,9 % presenta una implicación baja.

Entre quienes señalan realizar trabajos voluntarios puntuales de forma habitual un 46,5 % presenta una implicación alta y un 42,7 % implicación media en este tipo de acciones. El 10 % restante es presumible que colabore de forma habitual en otras formas de participación social no contempladas en la encuesta.

Quienes muestran su confianza en las plataformas y movimientos sociales tienden a participar en mayor medida que el resto en los diferentes tipos de acciones sociales propuestos y, por tanto, también presentan unos porcentajes de implicación alta superiores a los de quienes no confían en los movimientos sociales (19,0 % y 7,6 %, respectivamente).


Lo mismo ocurre con el esfuerzo por tratar de cambiar las cosas. Quienes consideran que merece la pena presentan mayores porcentajes de implicación alta (19,9 %) que quienes creen que es baldío (11,3 %).

Por último, hay que señalar, como hemos venido haciendo en relación a cada tipo concreto de acción social, la fuerte influencia del referente familiar. Cuando los progenitores están asociados y/o tienen experiencia en voluntariado la implicación alta (27,3 % y 28,2 %, respectivamente) duplica la registrada entre aquellas personas cuyos progenitores no están asociados ni hacen voluntariado.

5.

PARTE-HARTZE SOZIALAREN INDIZE SINTETIKOA

ÍNDICE SINTÉTICO DE PARTICIPACIÓN SOCIAL



Parte-hartze sozialaren indize sintetikoan euskal gazteriaren parte-hartze sozialaren maila eskala bakar batean biltzen saiatu gara. Horretarako, orain arte aintzat hartutako hiru parte-hartze motak hartu ditugu kontuan: elkarrekin parte-hartzea, boluntariotza-jarduerak eta lan boluntarioak egitea eta nahitaez elkarrekin lotuta egin behar ez diren ekintza sozial zehatzetako parte-hartzea, hainbat mailatan.

Indizea parte-hartze motak laburbiltzen dituzten adierazleen arabera eraiki da; elkarrekin parte-hartze maila, boluntariotzako eta lan boluntarioetako parte-hartze maila eta ekintza sozialetako parte-hartze maila laburtzen dituzten indizeak, hain zuzen ere.

Gazte batek parte-hartze sozial handia izateko, hiru baldintza hauetako bi bete behar ditu gutxienez: elkarrekin bateko kide izatea eta bertan askotan parte hartzea, boluntariotza-jarduerak edo lan boluntarioak intentsitate handiarekin egitea edo ekintza sozialetan inplikazio handia izatea.

Gazte batek parte-hartze sozial ertaina duela diogu lehen aipatutako baldintzetako bat betetzen badu (elkarrekin bateko kide izatea eta bertan askotan parte hartzea, boluntariotza-jarduerak eta/edo lan boluntarioak intentsitate handiarekin egitea edo ekintza sozialetan inplikazio handia izatea) edota beste hiru baldintza hauetako bi betetzen baditu: elkarrekin bateko kide izan eta bertan noizean behin parte hartzea, boluntariotza-jarduerak edo lan boluntarioak intentsitate ertainarekin egitea edo inplikazio ertaina izatea ekintza sozialetan.

Azkenik, pertsona batek parte-hartze sozial txikia du hiru adierazle indibidualetako batean ere ez badu puntuazio handia lortzen eta, asko jota, puntuazio ertaina badu

El índice sintético de participación social trata de resumir en una única escala el nivel de participación social de la juventud vasca teniendo en cuenta los tres tipos de participación considerados hasta el momento: la participación en asociaciones, la realización de actividades de voluntariado o trabajos voluntarios y la participación, en mayor o menor grado, en formas de acción social concretas no necesariamente vinculadas a la pertenencia a asociaciones o a actividades de voluntariado.

El indicador se construye a partir de los índices que resumen tales tipos de participación: el índice de participación en asociaciones, el índice de participación en voluntariado y trabajos voluntarios y el índice de implicación en acciones sociales.

Para considerar que una persona joven tiene una participación social alta debe cumplir al menos dos de las siguientes tres condiciones: pertenecer a una asociación y participar en ella de forma habitual, realizar actividades de voluntariado o trabajos voluntarios con una intensidad alta y/o tener una implicación alta en acciones sociales.

Decimos que una persona joven tiene una participación social media si sólo cumple una de las condiciones señaladas en el párrafo anterior (pertenecer a una asociación y participar en ella de forma habitual, realizar actividades de voluntariado o trabajos voluntarios con una intensidad alta y/o tener una implicación alta en acciones sociales) o bien reúne dos o tres de los siguientes requisitos: pertenecer a alguna asociación y participar en ella de forma ocasional, realizar actividades de voluntariado o trabajos voluntarios con una intensidad media y/o tener una implicación media en acciones sociales.


Por último, una persona tiene una participación social baja si no puntúa alto en ninguno de los índices individuales y,

horietako bakar batean (elkarte bateko kide izan eta bertan noizean behin parte hartzea, boluntariotza-jarduerak edo lan boluntarioak intentsitate ertainarekin egitea edo inplikazio ertaina izatea ekintza sozialetan), eta beste bietan edo hiruetan puntuazio txikia izatea. Kategoria honetan daude elkarreetako kide ez diren edo kide izan arren parte hartzen ez duten gazteak, boluntariotza-jardueretan edo lan boluntarioetan intentsitate txikia dutenak edo ekintza sozialetan inplikazio txikia dutenak.

Nola banatzen da euskal gazteria hiru kategoria hauetan? Gazteen % 12,5ek parte-hartze sozial handia du, % 43,3k parte-hartze sozial ertaina eta gainerako % 44,2k parte-hartze sozial txikia.

63. GRAFIKOA.

Parte-hartze sozialaren indize sintetikoak (%)



como mucho, puntúa de forma media en tan solo uno de ellos (pertenecer a alguna asociación y participa en ella de forma ocasional, realiza actividades de voluntariado o trabajos voluntarios con una intensidad media o tiene una implicación media en acciones sociales), de modo que puntúa bajo en dos o en los tres índices. Las personas jóvenes que no pertenecen a asociaciones o bien, perteneciendo no participan en ellas, tienen una intensidad baja de participación en voluntariado o trabajos voluntarios y tienen baja implicación en acciones sociales pertenecen a esta categoría.

¿Cómo se reparte la juventud vasca en relación a este índice sintético de participación social? El 12,5 % de las y los jóvenes tienen una participación social alta, un 43,3 % una participación social media y el 44,2 % restante una participación social baja.

GRÁFICO 63.

Índice sintético de participación social (%)

Gizonen presentzia emakumeena baino zertxobait altuagoa da parte-hartze handi eta ertainaren kategorietan. Emakumeek, ordea, parte-hartze sozial txikiko portzentaje handixeagoak dituzte (emakumeen % 47,6 dago kategoria honetan, gizonezkoen % 40,8ren aldean).

Adinak aurrera egin ahala handitu egiten da parte-hartze sozial txikiko gazteen kopurua. 20 urtetik beherakoan artean ohikoena parte-hartze sozial ertaina izatea da (% 48,7, batez besteko % 43,3ren gainetik).

Goi-mailako ikasketak egin dituztenen edo egiten ari direnen artean parte-hartze sozial handia zabaldago dago (% 14,3) derrigorrezko bigarren hezkuntza edo

Los hombres jóvenes se agrupan algo más que las mujeres jóvenes en las categorías de participación alta y media. Las mujeres jóvenes presentan porcentajes algo superiores de participación social baja (47,6 % frente a 40,8 % de los hombres).

A medida que se incrementa la edad son algunos más los y las jóvenes con participación social baja. Entre quienes no alcanzan los 20 años lo más habitual es tener una participación social media (48,7 %, por encima del 43,3 % de media).

Quienes cuentan con estudios superiores (finalizados o en curso) tienen mayores niveles de participación social alta (14,3 %) que quienes tienen estudios obligatorios o

derrigorrezko bigarren hezkuntza ondokoa egin dutenen artean baino (% 8,4).

Beren burua gizarte-maila altuan edo ertain-altuan kokatzen dutenek portzentaje altuagoak dauzkate parte-hartze sozial handiko kategorian (% 21,4). Gauza bera gertatzen da politikan interes handia edo nahikoa interes dutenen artean (% 18,0).

64. GRAFIKOA.


Parte-hartze sozialaren indize sintetikoak, gizarte-maila subjektiboaren eta politikarekiko interesaren arabera (%)

secundarios postobligatorios (8,4 %).

Las personas jóvenes que se consideran de clase social alta o media-alta presentan porcentajes superiores al resto en la categoría de participación social alta (21,4 %). Lo mismo ocurre con quienes dicen tener mucho o bastante interés en la política (18,0 %).

GRÁFICO 64.

Índice sintético de participación social, según clase social subjetiva e interés en la política (%)



Orain arte ikusi ditugun kasu gehienetan bezala, familiaren erreferentziak, etxeko sozializazio-giroak, eragin handia du gazteen parte-hartze sozialaren mailan. Elkarre bateko kide diren edo boluntariotza-jarduerak edo lan boluntarioak egin dituzten gurasoen seme-alabek batez bestekoaren gaineko portzentajeak dituzte parte-hartze handi eta ertaineko kategorietan.

Eskolako esperientzia partizipatiboek, aldiz, ez dute aldaketarik eragiten indize sintetikoan.

Elkarreah zaharkituta geratzen ari direlako ideiak ere ez du eragirik parte-hartzean.


Tal y como se ha constatado hasta el momento, el referente familiar, el ambiente de socialización en el hogar, incide en gran medida en la participación social de la juventud. Entre las personas jóvenes cuyos progenitores son miembros de alguna asociación y/o han realizado voluntariado o trabajos voluntarios en alguna ocasión los porcentajes de participación alta y media son superiores a la media.

La experiencia de participación en el centro escolar, en cambio, no arroja diferencias en este índice sintético.

Tampoco la opinión sobre si las asociaciones se están quedando anticuadas incide en tener una participación mayor o menor.

65. GRAFIKOA.

Parte-hartze sozialaren indize sintetikoa, gurasoen asoziazionismoaren eta boluntariotzaren arabera (%)

**GRÁFICO 65.**


Índice sintético de participación social, según asociacionismo y voluntariado de los progenitores (%)

Alabaina, gauzak aldatzen saiatzeko ahaleginak merezi ez duelako eta gaur egungo bizi-erritmoak parte hartzea galarazten duelako iritziek badute eraginik. Bi ideia horiekin ados ez dauden parte-hartze sozial handiaren portzentajeak pixka bat altuagoak dira.

Sin embargo, la opinión sobre si es inútil tratar de cambiar las cosas o sobre si el ritmo de vida actual impide participar sí incide en una mayor o menor participación. Quienes se declaran en desacuerdo con ambas ideas presentan porcentajes algo superiores de participación social alta.

66. GRAFIKOA.

Parte-hartze sozialaren indize sintetikoa, gauzak aldatzen saiatzea alperrikakoa delako ustearen eta egungo bizi-erritmoak parte-hartzea galarazten duelako iritziazen arabera (%)

**GRÁFICO 66.**

Índice sintético de participación social, según la opinión sobre si es inútil tratar de cambiar las cosas y sobre si el ritmo de vida actual impide participar (%)

Pertsona gehienengan konfiantza izan dezaketela uste duten gazteen parte-hartze sozial handiaren portzentajeak altuagoak dira (% 14,7) besteein zuhurtziaz ibili behar dela uste dutenenak baino (% 10,2).

Alderdi politiko, sindikatu, gobernuz kanpoko erakunde eta/edo plataforma eta mugimendu sozialengan konfiantza dutenek (hau da, 0-10 eskalan 5etik gorako nota ematen dietenek) erakundeengan konfiantzarik ez dutenek baino parte-hartze sozial handiko portzentaje altuagoak dituzte. Alderik handiena plataforma eta mugimendu sozialen kasuan agertzen da; haiengan konfiantza duten gazteen % 13,8k parte-hartze sozial handia du, konfiantzarik ez dutenen % 5,0ren aurrean. Elizaren kasuan, ordea, ez da desberdintasunik ikusten parte-hartze sozialari dagokionez erakunde honengan konfiantza dutenen eta ez dutenen artean.

Las personas jóvenes que piensan que se puede confiar en la mayoría de la gente presentan porcentajes de participación social alta ligeramente superiores (14,7 %) a quienes consideran que nunca se es suficientemente prudente al tratar con los demás (10,2 %).

Quienes confían en los partidos políticos, en los sindicatos, en las ONG y/o en las plataformas y movimientos sociales (ya que les otorgan una puntuación superior al 5 en la escala de confianza que oscila entre 0 y 10) presentan mayores porcentajes de participación social alta que quienes no confían en estas instituciones. La mayor diferencia se observa en el caso de las plataformas y movimientos sociales; las y los jóvenes que confían en ellas tienen un 13,8 % de participación alta frente a un 5,0 % entre quienes no confían en ellas. En el caso de la Iglesia, en cambio, no se aprecian diferencias en el nivel de participación social entre quienes confían y quienes no confían en esta institución.

6. TAULA.

Parte-hartze sozialaren indize sintetikoa, erakundeenganako konfiantzaren arabera (%)

TABLA 6.


Índice sintético de participación social, según confianza en instituciones (%)

INDIZE SINTETIKOA ÍNDICE SINTETIKOA	Erakundenganako konfiantza / Confianza en instituciones									
	Eliza Iglesia		Alderdi politikoak Partidos políticos		Sindikatuak Sindicatos		GKE / ONG		Gizarte mugimenduak eta plataformak Plataformas y movimientos sociales	
	Konfiantza du Confía	Ez du konfiantzarik No confía	Konfiantza du Confía	Ez du konfiantzarik No confía	Konfiantza du Confía	Ez du konfiantzarik No confía	Konfiantza du Confía	Ez du konfiantzarik No confía	Konfiantza du Confía	Ez du konfiantzarik No confía
Parte-hartze sozial handia Participación social alta	12,2	12,7	14,6	11,6	15,1	10,2	14,0	7,9	13,8	5,0
Parte-hartze sozial ertaina Participación social media	42,8	43,5	47,2	41,4	43,2	43,4	43,8	41,7	44,1	41,1
Parte-hartze sozial txikia Participación social baja	45,0	43,8	38,3	47,0	41,7	46,4	42,2	50,5	42,1	53,9

6.

ONDORIOAK

CONCLUSIONES



Azterketari amaiera emateko, Euskadiko gazteen parte-hartzea bezalako gai konplexu baten inguruan sortzen diren zalantza nagusiei erantzuna emango diegu.

Parte-hartzailea da euskal gazteria?

Parte-hartze soziala Euskadiko gazteen ezaugarri bat dela esan dezakegu. Aztertutako datuek diotenez, okerra da gazteei hainbatetan leporatu ohi zaien gogogabetasuna: gazteen erdiak baino gehiagok parte-hartze sozial handia edo ertaina du.

Nola hartzen du parte gazteriak?

Parte hartzeko era tradizionalak, elkarteetako partaidetzak, esaterako, gazteen erdia baino gehiago erakartzen dute, baina indarra hartzen doaz beste jarduera ez konbentzional batzuk, hala nola noizbehinkako lan boluntarioak egitea edo noizbehinkako parte-hartze indibiduala eta ez presentziala (interneten bidez) ahalbidetzen duten ekintza sozialak.

Izatez, asoziatu gabeko euskal gazteen erdiak ia du inplikazio handia edo ertaina aztertutako ekintza sozialetan. Gazteek parte hartzeko arazo bezala aipatzen dute denbora-falta, eta horrexegatik ari dira indarra hartzen boluntarioritzaren konpromiso jarraitua eskatzen ez duten noizbehinkako jarduerak.

Zer elkarte nahiago dituzte gazteek?

Gazteentzat, kirol-elkarteak eta gazte-lokalak (ikerketa honetan elkarte-mota bezala hartu ditugunak, haien gorakadarengatik eta elkartearen ezaugarri asko betetzen dituztelako) dira gazteentzako elkarte erakargarrienak. Horiek kontuan hartuko ez bagenu, elkarteetako parte-hartze tasa 20 puntu jaitsiko litzateke. Talde horietan 20 urtetik beherakoek eta mutilek presentzia handiagoa dute, eta ondorioz bi talde horien elkartegintza-tasa zabaldua (zabaldua gazte-lokalak kontuan hartzen dituelako, beste ikerlan batzuetan ez bezala) handiagoa da.

Kirol-elkarteen eta gazte-lokalen ondotik, dibertimendurako elkarteak (konpartsak, peñak...) eta gazteen elkarteak edo aisialdi-taldeak ageri zaizkigu. Hamar gaztetik lau dira edo izan dira gazteen elkarte bateko edo aisialdi-talde bateko kide.

Para concluir esta investigación vamos a dar respuestas a los principales interrogantes que surgen ante este tema tan complejo como es la participación social de la juventud de Euskadi.

¿La juventud vasca es participativa?

La participación social puede considerarse una característica de la juventud vasca actual. Los datos analizados rompen con la etiqueta de apatía general asignada en ocasiones a las personas jóvenes, y es que más de la mitad de la juventud tiene una participación social alta o media.

¿Cómo participa la juventud?

Las formas convencionales de participación, como es la pertenencia a asociaciones, aglutinan a más de la mitad de las y los jóvenes, pero cobran más relevancia formas no convencionales como la realización de actividades voluntarias puntuales o formas de acción social que permiten una participación más individualizada, esporádica y remota (vía Internet).

De hecho, casi la mitad de la juventud no asociada tiene una implicación alta o media en las distintas acciones sociales propuestas. Las personas jóvenes mencionan las dificultades para participar por la falta de tiempo y es precisamente eso lo que hace que cobren mayor auge las formas puntuales de participación que no exigen un compromiso continuado como es el caso del voluntariado.

¿Qué asociaciones son más atractivas para las personas jóvenes?

Las asociaciones deportivas y las lonjas y locales juveniles (que en esta investigación hemos considerado como una forma de asociación más debido a su auge y a que comparten características comunes a las asociaciones) son las que agrupan a más jóvenes. Si las eliminásemos, el índice de participación en asociaciones descendería 20 puntos. La mayor presencia de chicos y de menores de 20 años en ambos tipos de grupos hace que la tasa ampliada de asociacionismo (denominada así por la inclusión de las lonjas, a diferencia de otras mediciones) sea más destacada en estos colectivos.

Tras las asociaciones deportivas y las lonjas destaca la pertenencia a asociaciones recreativas y juveniles o grupos de tiempo libre. Cuatro de cada diez jóvenes en Euskadi pertenecen o han pertenecido a una asociación o grupo juvenil o de tiempo libre.

Zer hedapen du boluntariotzak? Eta momentu jakinetako boluntario-lanek?

Boluntariotza ez dago asoziazionismoa bezain hedatua; hamar gaztetik lauk badu esperientziaren bat, orain edo iraganean, boluntariotzan. Kopuru horren erdiak baino ez ditu boluntariotza-jarduerak egiten gaur egun, eta hamarretik batek baino ez gutxienez hilabeteen behin parte hartzea eskatzen duen boluntariotza egonkor eta jarraituaz ari bagara. Alor honetan, emakumeek gizonek baino presentzia handiagoa dute.

Boluntariotza egiten duten gehien-gehienak (maiztasuna edozein delarik ere) elkarte bateko kide dira, eta beraz pentsatzekoa da lan boluntarioa elkarte baten babespean egiten dutela, hots, boluntariotza formal deritzana egiten dutela.

Badaude, hala ere, konpromiso txikiagoa eskatzen duten moduak jarduera boluntarioak egiteko: boluntariotza informala. Hamar gaztetik seik egin dituzte momentu jakinetan horrelako lan boluntarioak.

Gazteak bi kategoría horien arabera sailkatzerakoan (boluntariotza egonkorra eta noizbehinkako jarduera boluntarioak), ikusten dugu elkarren kontrako bi polo daudela, pisu berekoak biak: hamar gaztetik hiruk esperientzia dute bai boluntariotzan nola noizbehinkako jarduera boluntarioetan eta hamarretik hiruk, ere bai, ez du inolako esperientziarik bi jarduera-mota hauetan. Gainerakoek bi gauzetako bat egin du.

Bestalde, bi talde puruak kontuan hartuta (hau da, boluntariotza jarraitua bai baina noizbehinkako lan boluntarioak egin ez dituztenak eta, aitzitik, noizbehinkako lan boluntarioak bai baina boluntariotza jarraiturik egin ez dutenak), ikusten dugu boluntariotza jarraituaren kasuan hezkuntzako aisialdia dela alorrik jorratuena, eta noizbehinkako lan boluntarioen kasuan, aldiz, kirolarekin lotutako jarduerak direla nagusi.

Zeintzuk dira asoziatzeko motibazioak? Eta boluntariotza edo momentu jakinetako lan boluntarioak egitekoak?

Bi taldeen motibazioei dagokienez, ikusten dugu elkarte bateko kide direnek motibazio ludiko edo erlazional bategatik egiten dutela, hau da, norberaren gozamenagatik, eta boluntariotza edo momentu jakinetako lan boluntarioak egiten dituztenek motibo etiko edo ideologikoak dituztela batez ere, nahiz eta alor ludikoak ere garrantzi handia duen.

¿Cuál es la extensión del voluntariado? ¿Y de los trabajos voluntarios puntuales?

El voluntariado está menos extendido que el asociacionismo; cuatro de cada diez jóvenes tienen alguna experiencia (presente o pasada) en voluntariado. La cifra se reduce a más de la mitad si tenemos en cuenta a quienes dicen hacer voluntariado en el presente, y se ajusta a uno de cada diez jóvenes si nos ceñimos al voluntariado estable o continuado que exige una participación mínima mensual. La presencia femenina es mayor que la masculina en este ámbito.

La gran mayoría de quienes hacen voluntariado (con mayor o menor frecuencia) pertenecen a alguna asociación, con lo que cabe suponer que desarrollan su labor al amparo o bajo la tutela de la asociación, esto es, realizan lo que hemos denominado voluntariado formal.

Pero también hay otras formas informales de realizar actividades voluntarias que exigen menor compromiso. Seis de cada diez jóvenes han realizado en alguna ocasión colaboraciones puntuales voluntarias.

Al clasificar a la juventud en función de ambas categorías (voluntariado estable y acciones voluntarias puntuales), vemos que hay dos polos opuestos con el mismo peso: tres de cada diez jóvenes tienen experiencia tanto en voluntariado como en actividades voluntarias puntuales y otros tantos, tres de cada diez también, no tienen experiencia en ninguna de estas actividades. El resto hace o ha hecho una cosa u otra.

Por otro lado, tomando los tipos puros, esto es, por un lado quienes hacen o han hecho voluntariado pero no actividades voluntarias puntuales y, por otro, quienes han hecho actividades voluntarias concretas pero no voluntariado continuado, a fin de ver qué tipo de actividades son propias del voluntariado estable y de las colaboraciones voluntarias puntuales, vemos que en el primer grupo destaca el trabajo en el ámbito del tiempo libre educativo, mientras que en el segundo el principal ámbito de actuación es el deportivo.

¿Cuáles son las motivaciones para asociarse? ¿Y para hacer voluntariado o colaboraciones voluntarias puntuales?

En cuanto a las motivaciones de uno u otro grupo, vemos que mientras que quienes pertenecen a alguna asociación lo hacen principalmente por una motivación lúdica o relacional, esto es, de disfrute personal, quienes hacen voluntariado o trabajos voluntarios puntuales se mueven más por motivos éticos o ideológicos, si bien el aspecto lúdico de la acción también tiene mucha importancia.

Zer ekintza-motetan hartzen dute parte gehien pertsona gazteek?

Gazteek parte har dezaketen ekintzen artean, kirolarekin edo kulturarekin lotutako jarduera herrikoikiak dira gazteen presentzia handiena dutenak (ia bi heren). Gisa honetako jardueretara joateaz gain, gazteen herenak dio horiek antolatzen lagundu duela azken urtean. Portzentaje hori gazteen presentziarik handiena duen bigarren jarduera (sinadura-bilketak) antolatzen edo sustatzen ibilitako gazteena baino hamar puntu handiagoa da.

Antolakuntzan edo sustapenean gazteen parte-hartze handiena duen bigarren jarduera-taldea sinadura-bilketek, interneteko eztabaidek eta salaketek eta diru-bilketek osatzen dute. Hiru ekintza horiek ekintza indibiduala ahalbidetzen dute. Gainera, interneten bidez egin daitezkeenez, errazagoa da horietan edozein unetan eta edonon egonda ere parte hartzea, beste pertsona batzuekin koordinatu beharrik gabe.

Asanbladak, manifestazio edo elkarretaratzeak eta hauteskundeak une eta leku jakin batean egoteko beharra suposatzen dute. Horiek antolatzen edo modu aktiboagoan (batzarretan besteen aurrean hitz eginez edo bozketetarako norbere hautagaitza aurkeztuz, adibidez) parte hartzen duten gazteen kopurua aurreko ekintza-taldekora baino txikiagoa da, baina horietan oro har eta edozein modutan parte hartzen duten gazteen portzentajea % 50etik gertukoa da manifestazio eta elkarretaratzeen kasuan, eta % 40 ingurukoa batzar eta hauteskundeetan.

Azkenik, baina ez horregatik garrantzi txikiagoarekin, gazteen laurdenak hartzen du parte odola edo organoak ematen.

Oro har, gazteen bi heren antolatu dute aipatutako jardueretako bat edo, antolatzen lagundu ez badute ere, aipatu diren zortzietako seietan egon dira gutxienez eta horregatik inplikazio handia edo ertaina dutela esaten dugu.

Zeintzuk dira parte-hartzearen eragileak?

Hiru dira parte-hartzearen eragile nagusiak, bai elkarteetan, jarduera boluntarioetan edo aztertutako ekintza sozialetan ere; gizarte-maila subjektiboa, politikarekiko interesa eta familiaren erreferentzia.

Gizarte-maila altuko edo ertain-altukoa izateak ez dakartza baliabide ekonomikoak bakarrik, ikasketa-maila handiagoa eta, ondorioz, ezagutzak ere

¿En qué tipos de acciones sociales participan más las personas jóvenes?

Los eventos populares de carácter cultural o deportivo son, de entre las distintas acciones sociales en que puede participar la juventud, los que cuentan con mayor presencia de jóvenes, casi dos tercios. Además de acudir más a este tipo de eventos, un tercio de las y los jóvenes dice haber participado en su organización en el último año, superando en diez puntos la participación en la organización o promoción de las recogidas de firmas, siguiente acción social con mayor presencia joven.

La recogida de firmas, los debates o denuncias por Internet y las recaudaciones de fondos o donativos componen el segundo grupo de acciones con mayor participación de la juventud en su organización. Estos tres tipos de acciones sociales permiten la acción individual y que, además, esta pueda realizarse por Internet, con lo que se facilita tomar parte en ella en cualquier momento o lugar, sin necesidad de coordinarse físicamente con otras personas.

Las asambleas, manifestaciones o concentraciones y elecciones conllevan la presencia física en un lugar y momento concreto. Los niveles de presencia en su organización o participación más activa (hablar en público en asambleas o presentar la candidatura propia) bajan respecto al anterior grupo de acciones, si bien el cómputo total de la juventud que participa en las mismas (de cualquier forma), es de prácticamente la mitad de la juventud en el caso de las manifestaciones y concentraciones, y de cuatro de cada diez en el caso de las asambleas y votaciones.

Por último, pero no menos importante, una cuarta parte de la juventud participa, de uno u otro modo, en las donaciones de sangre u órganos.

En general, casi dos tercios de las y los jóvenes han organizado alguna de las acciones referidas o, si no han participado en su organización, relatan haber acudido como mínimo a seis de las ocho propuestas, por lo que se considera que tienen una implicación alta o media en acciones sociales.

¿Cuáles son los principales condicionantes de la participación?

Los principales condicionantes de la participación, bien sea en asociaciones, en actividades voluntarias o en las distintas acciones sociales propuestas, son la clase social subjetiva de pertenencia, el interés por la política y el referente familiar.

Pertenecer a una clase social alta o media-alta permite disponer no solo de recursos económicos, sino también

badakartza, baita denbora, harremanak... bezalako baliabide ukiezinak ere.

Politikarekiko interesak inplizituki dakartza errealitate sozialarekiko, gaurkotasunarekiko, arazo sozialekiko eta horien konponbideekiko, hainbat ekintza sozialekiko eta abarreko interesa.

Familiaren erreferentziak, azkenik, jarrera-eredu bat ematen die gazteei. Haurtzaroan guraso parte-hartzaile batzuen esperientzia izateak garrantzi handiko balore eta irizpide batzuk ematen dizkio haurrari sozializazio-prozesuan.

Hiru faktore hauek dira erabakigarriak, baina ez da ahaztu behar elkarteetako kide izateak eragina duela gerora egiten diren jarduera boluntarioetan edo ekintza sozial zehatzetan, eta ondorioz pentsa dezakegula ekintza sozial asko, boluntarioak izateaz gain, elkarte baten babespean edo horren funtzionamenduaren barruan sortzen direla. Elkarteetan geroz eta presentzia handiagoa izan (asoziatutako gazteen erdia elkarte bat baino gehiagoko kide da), orduan eta handiago da parte-hartze soziala.

Posible da parte-hartze osoa?

Parte-hartze osoa ez da existitzen eta ez da sekula existituko, baina aipatzekoa da asoziatu gabeko gazteen erdiak ezagutzen duela bere inguruko artean haiek nahi izanez gero ere parte hartu ahal izango luketen elkarteetan parte hartzen duen jendea, eta boluntariotzarik edo momentu jakinetako lan boluntariorik egin ez dutenen bi herenek ere ezagutzen dutela haiek nahi izanez gero egin litzaketen lan boluntarioak egiten dituen norbait. Hau da, pertsona horien interesak, aukerak, bizitzaren egoera, egoera soziala eta abar aldatuko balira, gazte hauen parte-hartzea aktibatu ahal izango litzateke.

Izan ere, parte-hartzea harreman ireki bat da, etengabe aldatzen doana. Ez dago talde itxirik, eta gazteak erraz pasa daitezke kategoría batetik bestera. Horregatik, oso garrantzitsua da informazio konplexu hau laburbil dezaketen adierazleak edukitzea eta horiek denboran duten eboluzioa aztertzea.

Zeintzuk dira parte-hartze sozialaren oinarritzko adierazleak? Eta zer baloretan daude 2015ean?

2015ean, txosten honetan deskribatu diren parte-hartzearen adierazle nagusiek elkarteetako, boluntariotzako eta ekintza sozialetako parte-hartzea laburbiltzen dute, eta honako datu hauek ematen dituzte:

de mayor nivel educativo y, por tanto, conocimientos, y de recursos intangibles como el tiempo, la red de relaciones, etc.

El interés por la política lleva implícito interés por la realidad social, por los acontecimientos de actualidad, los problemas sociales y las propuestas de solución, formas de acción social, etc.

El referente familiar, por último, sirve de modelo de actuación a seguir. La experiencia durante la infancia de unos progenitores participativos marca una serie de valores y pautas en el proceso de socialización de indudable importancia.

